En el marco de dicho Plan de Lucha contra el Fraude definido por la Hacienda Foral de Bizkaia se establecen, con carácter básico y anual, tres grandes áreas de actuación:

a) Prebentziozko jarduketak.

b) Zerga-garrantzia duen informazioa jasotzeko jarduketak.

c) Zerga-zorrak erregularizatzeko eta kobratzeko jarduketak.

a) Actuaciones preventivas.

b) Actuaciones de obtención de información con transcendencia tributaria.

c) Actuaciones de regularización y cobro de las deudas tributarias.

Prebentziozko jarduketak zergadunen iruzurrezko ekintzak detektatzeko eta galarazteko Foru Ogasuneko organoek egiten dituzten ekintzak dira, eta ekintza horiek egin baino lehen gauzatzen dira. Hala, jarduketa horietatik eratorritako galerak ekiditen dira.

Se entiende por actuaciones preventivas aquellas acciones de control realizadas por los órganos de la Hacienda Foral, dirigidas a detectar y evitar la realización de actuaciones fraudulentas de los obligados tributarios antes de su comisión, evitando, por tanto, la pérdida recaudatoria derivada de este tipo de actuaciones.

Zerga-garrantzia duen informazioa eskuratzera, normalizatzera eta aztertzera daude bideratuta informazioa lortzeko jarduketak, hain zuzen ere zergak aplikatzeko prozedurak ezarriko zaizkien zergapekoen hautaketa hobetzeko eta horien gainean jarraituko diren prozedurak garatzeko.

Las actuaciones de obtención de información están dirigidas a la obtención, normalización y análisis de la información con transcendencia tributaria con el fin de mejorar la selección de los obligados tributarios que vayan a ser objeto de los procedimientos de aplicación de los tributos y el desarrollo de los procedimientos que se sigan sobre los mismos.

Gainera, horri dagokionez, nabarmendu egin behar da gainerako foru zerga administrazioekin, Estatuko administrazioarekin eta EBren kide diren gainerako Estatuekin gauzatutako informazio trukaketen sendotzea eta areagotzea.

Además, en esta línea destacar la consolidación e intensificación de los intercambios de información con las demás Administraciones Tributarias Forales, la Administración Estatal y otros Estados miembros de la UE.

Azkenik, erregularizatzeko eta kobratzeko ekintzak zergadunen egoera fiskala egiaztatzeko, ikertzeko eta, beharrezkoa bada, erregularizatzeko egiten direnak dira. Zerga-zorrak (borondatezko epean eta ordainarazpen epean) ordainarazteko ekintzak ere hemen sartzen dira.

Por último, las acciones de regularización y cobro son aquellas encaminadas a la comprobación, investigación y, en su caso, regularización de la situación fiscal de los obligados tributarios, así como las acciones dirigidas a obtener el pago de las deudas tributarias tanto en período voluntario como en período ejecutivo.

Askotariko funtzioak ditu Ikuskaritza Zuzendariordetzak Iruzurraren Aurka Borrokatzeko Plana egikaritzean. Horiek guztiak aurretik adierazitako hiru jarduketa

Son diversas las funciones que corresponden a la Subdirección de Inspección en la ejecución del Plan de Lucha contra el Fraude, encuadradas en las tres áreas de actuación antes definidas destacando, en el ejercicio

eremuetan kokatzen dira 2018ko ekitaldian, hauetan:

A) Aurreneurriak dira alde batetik, iruzurrezko jarduketak detektatu eta saihesteko egiten diren jarduketak, eta beste alde batetik, zergadunek beraien betebehar fiskalak modu boluntarioan bete ditzaten sustatzeko ekintzak bultzatzen dituzten jarduketak.

A.1) Iruzurrezko jarduketak detektatzea:

- BEZ zergan definitutako erregistroetara sarbidea izateko eskariak kudeatu eta izapidetu dira, besteak beste honakoak: Batasunaren Barruko Eragileen Erregistroa (2.431 alta eskari, 888 berrikusita eta 1.808 eragilek baja eman dute) eta Hileko Itzulketen Erregistroa (104 alta eskari, 3 ukatu dira, 271 eragilek baja eman dute eta 78 eragileri ofiziozko baja eman zaie). Horrez gain, bertan kokatutako zergadunen jardunen jarraipena egin da.

- Erroldako alta, aldatze eta baja aitorpenetan jakinarazitako datuak egiaztatzera bideratutako jarduketak. 2018 urtean ia 18.968 errolda alta aitorpen formalizatu dira, 17.141 errolda aldatzekoak eta 13.285 ia erroldan baja ematekoak. Aitorpen horiek aurkezteko 976 eskari bidali dira.

- Zergadunen helbideak kontrolatzearekin lotutako 18 espediente izapidetu dira.

- Zergapekoek zerga-betebeharrak (informazio aitorpenak aurkeztea) betetzen dituztela kontrolatzeko jarduketak. Betebehar horiek eskatzeko, orokorrean 140, 190, 180 edo 193 ereduen errekerimendu masiboa gauzatzen da.

- Nazioarteko Fiskalitate eta Transferentziako Prezioen Unitatearen laguntzeko lehen eskaera formala zergak aplikatzeko prozedura baten beste instrukzio-organo batek egin du. Nazioarteko Fiskalitate eta Transferentziako Prezioen Unitatea nazioarteko eragiketa lotuak eta talde multinazionaletako erakundeen arteko transferentziako prezioak aztertzeko sortu zen, baita Espainian bizi ez diren eta Bizkaiko zergadunekin diharduten zergapekoek lorturiko errentek tributazioa egiaztatzeko ere.

2018, las siguientes:

A) Dentro de las actuaciones preventivas, se distinguen, por una parte, aquellas actuaciones de control para detectar y evitar actuaciones fraudulentas y, por otra, las destinadas a fomentar las acciones dirigidas a promover el cumplimiento voluntario por los obligados tributarios de sus obligaciones fiscales.

A.1) Detección de actuaciones fraudulentas:

- Se han gestionado y tramitado solicitudes de acceso a los diferentes Registros definidos en IVA, tales como el Registro de Operadores Intracomunitarios (2.431 solicitudes de alta, revisadas 888 y se han dado de baja 1.808 operadores) y el Registro de Devoluciones Mensuales (104 solicitudes de alta, se han denegado 3 y se han dado de baja 271 solicitudes y baja de oficio 78 operadores) efectuándose, además, labores de seguimiento de los obligados tributarios en ellos encuadrados.

- Actuaciones encaminadas a comprobar la veracidad de los datos comunicados en las declaraciones censales de alta, modificación y baja. En el año 2018 se han formalizado 18.968 declaraciones censales de alta, 17.141 de modificación y casi 13.285 de baja. Se han emitido 976 requerimientos de presentación de dichas declaraciones.

- Se han instruido 18 expedientes relacionados con el control de los domicilios de los obligados tributarios.

- Actuaciones encaminadas al control del cumplimiento por los obligados tributarios de sus obligaciones de presentación de las declaraciones informativas exigidas con carácter general mediante la realización de requerimientos masivos relacionados con la presentación de modelos tales como el 140, 190, 180, o el 193.

- Se realiza la primera petición formal de colaboración de la Unidad de Fiscalidad Internacional y Precios de Transferencia por otro órgano instructor de un procedimiento de aplicación de los tributos. La Unidad de Fiscalidad Internacional y Precios de Transferencia se creó para analizar las operaciones vinculadas internacionales y los precios de transferencia existentes entre entidades pertenecientes a grupos multinacionales, y para comprobar la tributación de las rentas obtenidas por contribuyentes no residentes en territorio

español que operen con contribuyentes vizcaínos.

- Zerga Berezien Unitatea sortzea proposatu da, Fabrikazio Zerga Berezien xede diren ondasunak fabrikatzen eta merkaturatzen diharduten zergapekoei lotutako zerga-prozedurak izapidetzeko.

- Se ha propuesto la creación de la Unidad de Impuestos Especiales que se dedique a la tramitación de los procedimientos tributarios relativos a los obligados tributarios involucrados en la fabricación y comercialización de los bienes objeto de los Impuestos Especiales de Fabricación.

- Behin-behineko kautela-neurriak hartzea zerga-zorrak kobratzea ziurtatzeko. Enbargoko 32 kautela-jarduketa egin dira, 7,4 milioi eurokoak guztira.

- Adopción de medidas cautelares de carácter provisional para asegurar el cobro de las deudas tributarias. Se han realizdo 32 actuaciones cautelares de embargo por un importe total de 7,4 millones de euros.

A.2) Zerga-betebeharrak modu boluntarioan betetzea sustatzea:

A.2) Fomento del cumplimiento voluntario de las obligaciones tributarias:

- Enplegua sustatzea eta baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak aplikatzea. Aurten 184, 036, 203, 223 eta 232 ereduetako aitorpenak BIRA (Bizkaiko Laguntza Aplikazioa) plataforman egiteko programak sartu dira. Eredu eta ekitaldi anitzeko plataforma bat da, hots, behin baino ez da jaitsi behar eredu guztiak erabiltzeko eta aitortzailearen datuak zentralizatu eta gordetzen ditu. Haren helburua zerga-aitorpenak egiteko egungo laguntza-programak pixkanaka integratu eta ordeztea da.

- Fomento del empleo y aplicación de medios electrónicos, informáticos y telemáticos. Este año se han incorporado los programas para la confección de las declaraciones de los modelos 184, 036, 203, 223 y 232 en la plataforma BILA (Bizkaiko Laguntza Aplikazioa o Plataforma de Programas de Ayuda). Es una plataforma multimodelo y multiejercicio, es decir, solo es necesaria una descarga para el uso de todos los modelos y centraliza y guarda los datos de la persona declarante. Tiene como objtetivo integrar y sustituir progresivamente a los actuales programas de ayuda para confeccionar las declaraciones triutarias.

- 2018ko lehen seihilekoan, lehen aldiz, zerga-hezkuntzako eredu bat ezarri da ikastetxeentzat, ekonomiari eta fiskalitateari buruzko oinarrizko jakintza ezagutarazteko, euskal zerga sistemaren oinarrizko ezaugarriak eta zerga nagusien egitura azaltzeko eta zerga erantzukizuna onartzeko, zerga iruzurraren kontra egite aldera. Halaber, proiektua gero eta ikastetxe gehiagotan (33 berritan) ezartzea sustatu da.

- Implantación, por vez primera, en el primer semestre del año 2018, del módulo de educación tributaria dirigido a los centros escolares para difundir conocimientos básicos sobre economía y fiscalidad, explicar los rasgos básicos del sistema fiscal vasco y la estructura de los principales impuestos y asimilar la responsabilidad fiscal cara a combatir el fraude fiscal. Asimismo, se ha promovido la implantación del proyecto cada vez en más centros escolares (33 nuevos).

- Administrazioa aurretik lotesteko prozedurak eta irizpide fiskalak aplikatzeari buruzko jarraibideak sustatu dira. Hala, 2018an idatzizko 254 zerga-kontsulta eta aurretiazko 3 zerga-proposamen ebatzi dira. Orobat, apirilaren 24ko 1/2018 Jarraibidea onartu da, PFEZFAri buruzko abenduaren 5eko 13/2013 FA aplikatzeko irizpide batzuk ezartzen dituena.

- Se fomentan los procedimientos de vinculación administrativa previa y las instrucciones sobre la aplicación de los criterios fiscales. Así, en 2018 se han resuelto 254 consultas tributarias escritas y 3 propuestas previas de tributación. También se ha aprobado la Instrucción 1/2018, de 24 de abril, que establece determinados criterios para la aplicación de la NF 13/2013, de 5 de diciembre, del IRPF.

- Funtzionarioek zerga-iruzurrari lotutako gaietan eta, zehazkiago, zerga-kontrolerako

- Se incrementa la formación interna de los funcionarios en temas relacionados con el

auditoretza informatikoan jaso duten barne-prestakuntza gehitu da. Hala, zergadunen egiaztapen-tekniken erabilpena eta sistema eta ekipamendu informatikoen analisiak orokortu dira; horien bitartez gauzatzen dituzte beraien jarduera ekonomikoak. Zehazki, 2018an mota honetako 433 jarduketa egin dira.

- Zordunen zerrenda argitaratu da, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren ekainaren 14ko 1078/2018 Foru Aginduak ezarri zuenez. Zerrenda horretan 159 zordunen izenak argitaratu dira, eta horien zorraren zenbateko orokorra 453 milioi eurokoa da.

B) Informazioa jasotzeko eta tratatzeko eremuan:

71 milioi datu baino gehiago trukatu dituzte estatuko zenbait zerga administraziok. Gainera, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Foru Ogasunetara bidali ditu zergadun bizkaitarrek Europar Batasuneko beste Estatu batzuetan egindako eragiketa ekonomikoei buruzko informazioa zuten erregistroak. Hala, Batasunaren barruko ondasun-eskuraketek, hiru alderdiko eragiketek eta Bizkaian kokatutako zerbitzuek 145.000 datuak izan dituzte ia.

Horrez gain, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak zehaztutakoaren arabera, eta sinatu dituen informazioa trukatzeko hitzarmenekin bat eginez, Bizkaiko Foru Ogasunak (aurrerantzean BFO) administrazio, organismo eta erakunde publikoek egindako informazio-eskari zehatzei erantzuna ematen die.

Helburu hori jarraituz, 2018. urtean lankidetza-hitzarmen hauek formalizatu dira:

- Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako Foru Ogasunekin sinatutako hitzarmenak. Horiei esker, PFEZren eta Sozietateen gaineko Zergaren zergadunei buruzko 785 txosten trukatu ahal izan dira, zerga-egoitzari eta jakinarazpenetarako egoitzari buruz. Gainera, BEZari lotuta 2,3 milioi datu trukatu dira ia.

- FATCA abiaraztea. 2013ko maiatzaren 14an, Akordioa sinatu zuten Espainiak eta Ameriketako Estatu Batuek nazioarteko zergen betetzea hobetzeko eta Foreign Account Tax Compliance Act-FATCA (Atzerriko kontuen zergen betetzeari buruzko Legea) abiarazteko. Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren otsailaren 22ko 6/2018 Ebazpenak xedatu zuenez, 2018an jarraituko zen Akordio horretatik datorren informazio-trukean lan

fraude fiscal y más concretamente en auditoría informática para el control tributario, generalizando el uso de técnicas de verificación y análisis de los sistemas y equipos informáticos de los obligados tributarios mediante los cuales llevan a cabo sus actividades económicas. En concreto en 2018 se han realizado 433 actuaciones de este tipo.

- Publicación del listado de personas deudoras tal y como estableció la Orden Foral 1078/2018, de 14 de junio, del diputado foral de Hacienda y Finanzas. En este listado se han publicado 159 deudores por un importe global de deuda pendiente de 453 millones de euros.

B) En el ámbito de la obtención y tratamiento de la información:

Se han intercambiado más de 71 millones de datos entre las distintas Administraciones Tributarias del Estado. Por su parte, la AEAT ha remitido a las Haciendas Forales los registros con la información relativa a las operaciones económicas realizadas por contribuyentes vizcaínos en otros Estados de la Unión Europea siendo los mismos casi 145.000 datos referentes a adquisiciones intracomunitarias, operaciones triangulares y prestaciones de servicios localizadas en Bizkaia.

Además, la HFB responde a peticiones concretas de información realizadas por Administraciones, organismos, y entidades públicas dentro del marco establecido de la Norma Foral General Tributaria y de acuerdo con los convenios de intercambio de información que ha suscrito.

Con este fin en 2018 se han formalizado los convenios de colaboración que se relacionan a continuación:

- Convenios con las Haciendas Forales de Araba, Gipuzkoa y Navarra que han permitido el intercambio de 785 informes relativos a contribuyentes de IRPF y del Impuesto de Sociedades, sobre domicilio fiscal y domicilio a efectos de notificaciones. Además, se han alcanzado casi los 2,3 millones de datos intercambiados relativos al IVA.

- Implementación FATCA. El 14 de mayo de 2013 se firmó el Acuerdo entre España y los Estados Unidos de América para la mejora del cumplimiento fiscal internacional y la implementación de la Foreign Account Tax Compliance Act-FATCA (Ley de cumplimiento tributario de cuentas extranjeras). La Resolución 6/2018, de 22 de febrero, de la Dirección General de Hacienda dispuso que durante el año 2018 se seguiría trabajando en el intercambio de información derivado de este

egiten.

- Kontuen informazio truke automatikoa (CRS). ELGAk sistema bat garatu du Zergen Arloko Finantza-kontuei buruzko Informazio Truke Automatikorako, Common Reporting Standard edo CRS (Aitorpen Estandar Komuna) delakoan definituriko aitorpen eta bizkortasun prozeduretan oinarrituta. 2014ko urriaren 29an, Espainiako Erresumak Agintari Eskudunen Akordio Aldeaniztuna izenpetu zuen 2017an informazio-truke automatikoa abiarazteko, 2016ari lotutako finantza-kontuei buruzko informazioari dagokionez. 2018an lanak egin dira haren funtzionamendua doitu, egiazkotasuna egiaztatu eta jasotako informazioa zuzentzeko, zerga-iheseko arrisku egoerak hautemanez, sistemaren funtzionamenduan gorabeherak konpondu eta arlo horretan Zerga Agentziarekin komunikazioa bizkortzeko.

- Aurretiazko administrazio-loturako prozeduren truke automatikoa. Mugaz gaindiko efektuak dakartzaten aurretiazko administrazio-loturako prozeduretan informazio truke automatikoa nahitaez egin beharra ezarri du EBk ("tax rulings" deritzenak). ELGAren baitan ere truke hori adostu da BEPS ("Base Erosion and Profit Shifting" – Zerga-oinarriaren higadura eta etekinak lekuz aldatzea) egitasmoaren barruan. 2018an, 17 bidalketa egin dira, atzerriko 8 estatutan egoitza zuten erakundeei eragiten zieten 5 "tax rulling" zeuzkatenak eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziak lehen aldiz igorri dio Bizkaiko Foru Ogasunari atzerriko 4 estatuetatik datozen 5 "tax rulling"i buruzko informazioa. "Tax rulling" horiek Bizkaiko 5 erakunderi eragiten diete.

- Txostenen truke automatikoa lurraldez lurralde. Espainiako Gobernuak Agintari Eskudunen Akordio Aldeaniztuna izenpetu zuen 2016ko urtarrilaren 27an "lurraldez lurraldeko txostena" elkarri trukatzeko, ELGAren BEPS egitasmoaren barruan dagoena. Aldi berean, Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 25eko (EB) 2016/881 Zuzentarauak 2016ko urtarrilaren 1etik hasita multinazional talde handiek zergen administrazioetan aurkeztu beharreko lurraldez lurraldeko txostenetara zabaldu du informazio trukea. Horretarako informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredua onetsi zen, eta 2018an 6 taldek aurkeztu dute hura guztira.

Acuerdo.

- Intercambio automático de información de cuentas (CRS). La OCDE ha desarrollado un sistema para el Intercambio Automático de Información sobre Cuentas Financieras en Materia Tributaria, basado en los procedimientos de declaración y diligencia debida que se definen en el Common Reporting Standard o CRS (Estándar Común de Declaración). El 29 de octubre de 2014, el Reino de España firmó el Acuerdo Multilateral de Autoridades Competentes para comenzar el intercambio automático de información en 2017, en relación con la información de cuentas financieras relativa a 2016. Durante el año 2018 se han realizado tareas encaminadas a afinar su funcionamiento, verificar la veracidad y corrección de la información recibida, detectando situaciones de riesgo de evasión fiscal, resolver incidencias en el funcionamiento del sistema y agilizar la comunicación con la Agencia Tributaria en esta materia.

- Intercambio automático de procedimientos de vinculación administrativa previa. La UE establece la obligación de intercambio automático de información en los procedimientos de vinculación administrativa previa (los "tax rulings") que produzcan efectos transfronterizos. También en el seno de la OCDE se ha acordado dicho intercambio en el marco del proyecto BEPS ("Base Erosion and Profit Shifting" – Erosión de la base imponible y traslado de beneficios). En el año 2018, se han realizado 17 envíos que contienen 5 "tax rulings" que afectaban a entidades residentes en 8 Estados extranjeros y por primera vez la Agencia Estatal de Administración Tributaria ha remitido a la Hacienda Foral de Bizkaia información sobre 5 "tax rulings"procecentes de 4 Estados extranjeros que afectan a 5 entidades vizcaínas.

- Intercambio automático de informes país por país. El Gobierno de España ha firmado el 27 de enero de 2016, junto a otros 30 Estados, el Acuerdo Multilateral entre Autoridades Competentes para el intercambio del "informe país por país", incluido en el Proyecto BEPS de la OCDE. A su vez, la Directiva (UE) 2016/881 del Consejo, de 25 de mayo de 2016, ha extendido el intercambio automático de información a los "informes país por país" que tienen que presentar los grandes grupos multinacionales a partir del 1 de enero de 2016 en las distintas Administraciones tributarias. Para ello se aprobó el modelo 231 de Declaración de información país por país que han presentado

- Bizkaiko udalekin sinatutako hitzarmenak, informazioa zerga helburuetarako trukatzeko. Orain arte, Bilbokoa eta Durangokoa dira hitzarmena sinatu duten udal bakarrak, baina hitzarmena erabat betetzeko lanean jarraitzen dugu. Gainerako udalekin, beharrezko gestioak egiten jarraitzen dugu hitzarmenak sinatzeko.

- Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmena: 2016ko otsailean Esparru Hitzarmen bat formalizatu zen eta horri esker Eusko Jaurlaritzaren Sail ezberdinekin informazioa trukatzeko ildoak ezarri dira, hain zuzen ere laguntzen programa ezberdinen jarraipena egiteko. Fitxategi masiboen hornidura hau ordeztu egingo da 2019an, eta horretarako zerbitzu berriak ezarriko dira elkarreragingarritasun plataforman.

- Notariotzaren Kontseilu Nagusiarekin sinatutako hitzarmena: 2018. urtean eragiketa juridiko ohikoei buruzko 227.000 dokumentu baino gehiago jaso dira.

- ISEBekiko hitzarmenari dagokionez, 2018ko ekitaldian 2016ko ekitaldiko kalifikazio-txostenak jaso dira 381 enpresaren 774 proiekturi buruz, eta jasotzeke geratu dira 2017ko ekitaldiko kalifikazio-txostenak.

- BEAZekin sinatutako hitzarmena, berrikuntza teknologiako jarduerekin lotutako kenkarien jarraipena eta kontrola egiteko Sozietateen gaineko Zergan. 2018an gestioak hasi dira hitzarmenaren xedea ikerketa eta garapeneko jardueretara zabaltzeko.

- Laneko Ikuskatzailetzarekin sinatutako hitzarmena: hitzarmen hori 2011n formalizatu zen eta hari esker informazioa elkartrukatu da BFOren eta Laneko Ikuskailetzaren eta Gizarte Segurantzaren artean. 2018an 70 pertsonari eragin die. Zantzuak zeuden dieta salbuetsiak ordaintzen zituztela, halakoak izateko indarreko araudiaren baldintzak betetzen ez zituztenak.

- Lanbiderekin sinatutako hitzarmena. 2018. urtean, 112.020 zergapekoen zerga-informazioa igorri zitzaion Lanbideri, laguntzak emateko bere eginkizunak garatzen laguntzeko, baita laguntzak edo diru-laguntzak funts publikoen kargura lortzean edo jasotzean

un total de 6 grupos en el año 2018.

- Convenios con los Ayuntamientos de Bizkaia para el intercambio de información con fines tributarios. Hasta el momento, los únicos Ayuntamientos que han suscrito el convenio son el de Bilbao y el de Durango, si bien no se ha avanzado en su completa ejecución. Con el resto de ayuntamientos, se siguen realizando las gestiones necesarias para la firma de los convenios.

- Convenio con el Gobierno Vasco: en febrero de 2016 se formalizó un Convenio Marco que permite establecer las líneas generales para el intercambio de información con diversos Departamentos del Gobierno Vasco para seguimiento de los diferentes programas de ayudas. Este suministro de ficheros masivos se verá sustituido en 2019 por la implantación en la plataforma de interoperabilidad de los diferentes servicios.

- Convenio con el Consejo General del Notariado: durante 2018 se han recibido más de 227.000 documentos relacionados con operaciones jurídicas habituales.

- En relación con el Convenio con la SPRI, durante el ejercicio 2018 se han recibido los informes de calificación del ejercicio 2016 relativos a 774 proyectos de 381 empresas, quedando pendientes los informes de calificación del ejercicio 2017

- Convenio con BEAZ para el seguimiento y control de la deducción por actividades de innovación tecnológica en el Impuesto sobre Sociedades. En 2018 se han iniciado las gestiones para ampliar el objeto del convenio a las actividades de investigación y desarrollo.

- Convenio con Inspección de Trabajo: este convenio formalizado en 2011 ha permitido el intercambio recíproco de información entre la HFB y la Inspección de Trabajo y la Seguridad Social que en 2018 ha afectado a 70 personas jurídicas con indicios de satisfacer dietas exentas que no cumplen los requisitos de la normativa vigente para tal consideración.

- Convenio con Lanbide. En el año 2018, se ha remitido a Lanbide información tributaria en relación con 112.020 personas obligadas tributarias, con el fin de colaborar en el desarrollo de sus funciones relativas a la concesión de ayudas y de luchar contra el

iruzurraren kontrako borrokan ere.

Era berean, Zerga Kudeaketa eta Politikarekin batera, oro har exijitzen diren informazio-aitorpenetan BFOri emandako informazioa egiaztatu, finkatu eta aztertzearekin lotutako jarduketak gauzatu dira 2018. urtean. Zehazki, hauekin lotutako jarduketak gauzatu dira:

- Informazio aitorpeneko 232 eredua onartzea, zerga paradisutzat jotzen diren herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketa eta egoerekin lotutako eragiketei buruzkoa.

- Berrikuntza bultzatzeko europar funtsetako partaidetzak eskuratzeko gordailuei buruzko urteko informazio aitorpeneko 782 eredua onartu da. Eredu horri lotuta doikuntza batzuk egin dira inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzen duten akzioak eta partaidetzak eskuratu eta besterentzeari buruzko urteko informazio aitorpeneko 187 ereduan eta balore, aseguru eta errentei buruzko urteko informazio aitorpeneko 189 ereduan.

- Erabilera turistikoko etxebizitzak lagatzeko 179 eredua onartu da, 2018ko urteko aitorpena eta hurrengo urteetako hiruhilabetekokoak bilduko dituena.

- Informazioa berehala ematea Balio Erantsiaren gaineko Zergan. Zenbait pertsona-taldek eta erakundek erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bidez nahitaez eraman beharra. 2018an 193 milioi datu eman dira guztira fakturei buruzko datuen gainean.

Gainera, Nazioarteko Fiskalitate Unitateak jarduketa hauek egin ditu:

-130 erakunde aztertu kontabilizatutako finantza-gastuen kengarritasunaren jatorria zehazteko.

-Informazioa bildu Bizkaian presentzia duten talde multinazionalei buruz, taldearen zerbitzu komun batzuei dagokienez.

-Bizkaiko zerga-paradisutzat jotzen duten herrialdeetan eta lurraldeetan egoitza duten edo haiei lotuta dauden pertsona edo erakundeei

fraude en la obtención o percepción de ayudas o subvenciones a cargo de fondos públicos.

Asimismo durante 2018 se han llevado a cabo, conjuntamente con Gestión y Política Fiscal, actuaciones relacionadas con la verificación, consolidación y análisis de la información suministrada a la HFB en las declaraciones informativas exigidas con carácter general. En concreto, se han realizado actuaciones relativas a:

- Aprobación del modelo 232 de Declaración informativa de operaciones vinculadas y de operaciones y situaciones relacionadas con países o territorios calificados como paraísos fiscales.

- Aprobación del modelo 782 de Declaración informativa anual de los depósitos para la adquisición de particpaciones en Fondos europeos para el impulso a la innovación. Relacionado con este modelo se han realizado ciertos ajustes de los modelos 187 de Declaración informativa anual relativa a adquisiciones y enajenaciones de acciones y participaciones representativas del capital o patrimonio de las instituciones de inversión colectiva y 189 de Declaración informativa anual acerca de valores, seguros y rentas.

- Aprobación del modelo 179 de Cesión de viviendas de uso turístico que incluirá la declaración anual de 2018 y las trimestrales de años siguientes.

- Suministro Inmediato de Información (SII) en el Impuesto sobre el Valor Añadido. Obligatoriedad para determinados colectivos de personas y entidades de realizar la llevanza de los libros registro a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia. Durante el año 2018 han sido un total de más de 193 millones de datos sobre facturas suministrados.

Además, las actuaciones realizadas por la Unidad de fiscalidad internacional han sido las siguientes:

-Analizar a130 entidades para determinar la procedencia de la deducibilidad de las gastos financieros contabilizados.

-Recacabar información relativa a los grupos multinacionales con presencia en Bizkaia en relación con determinados servicios comunes del grupo.

-Obtener información respecto de los obligados tributarios vizcaínos relacionados con personas o entidades residentes o vinculadas con países y

lotutako zergapekoei buruzko informazioa lortu.

-Informazioa lortu Espainiako lurraldean egoiliar ez diren eta Bizkaian jarduerak egiten dituzten pertsonen tributazioari buruz.

territorios que tengan la consideración de paraísos fiscales.

-Obtener de información en relación a la tributación de personas no residentes en territorio español que desarrollan actividades en Bizkaia.

Bukatzeko, eta jarduketa multzo honen barne, informazio selektiboaren jasotzea honako arloekin harremanetan gauzatu da:

- Jarduera profesionalei buruzko informazioa eskuratzea eta sozietateak ezartzea.
- Atxikipenetik eta kargatik salbuetsitako dieten eta bestelako ordainsarien ordainketari buruzko informazioa jasotzea iruzur zantzuak direnean.
- Gastu ez kengarriak eta kontsumo pribatuak detektatzea.
- Kontsumo-txartelak kontrolatzea.
- Informazioa lortzea ekonomia-jardueren zergadun aitortzaileen funts sarrera eta irteeren eta aitortutakoaren artean dagoen desoreka zuritzeko.
- Faktura irregularrak edo egiazko eduki ekonomikorik gabekoak ematea edota jasotzea kontrolatzeko kanpainak eta faktura igorri eta emateko betebeharraren presentziako kontrola.
- Enpresa handiek sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarrian eginiko doikuntzen analisia.
- 20R ereduaren bidez enpresa berregituratzeko eragiketen analisia.

Por último, dentro de este grupo de actuaciones, la captación de información selectiva se ha efectuado en relación a los siguientes campos:

- Obtención de información de actividades profesionales e interposición de sociedades.
- Recogida de información sobre abono de dietas u otras retribuciones exentas de retención y gravamen con indicios de ser fraudulentas.
- Detección de gastos no deducibles y consumos privados.
- Control de tarjetas de consumo.
- Obtención de información para la justificación del desfase existente entre las entradas y salidas de fodos de los contribuyentes declarantes de actividades economicas y lo declarado.
- Campañas de control sobre la emisión y/o recepción de facturas irregulares o sin contenido económico real y control presencial del deber de expedir y entregar factura.
- Análisis de ajustes en la base imponible del impuesto sobre sociedades realizados por las grandes empresas.
- Análisis de operaciones de reestructuración empresarial a través del modelo 20R.

C) Erregularizazio- eta kobrantza-jarduketak:

C.1) Delitu fiskalak

- 2018ko ekitaldi honetan Justizia Auzitegien 3 zigor-epai irmo bihurtu dira delitu fiskalak direla-eta. Hala, 24 urteko kartzela-zigorrak eta desgaikuntza-zigor osagarriak ezarri dira.
- Kondena-epaiak betearazi dira, 6 likidazio eginez, 6,5 milioi erantzukizun zibilagatik eta 1,7 milioi euro interesengatik.

C) Actuaciones de regularización y cobro:

C.1) Delitos fiscales

- En este ejercicio 2018 han adquirido firmeza 3 sentencias condenatorias de los Tribunales de Justicia por la existencia de delitos fiscales con condenas por 24 años de prisión y penas accesorias de inhabilitación.
- Se ha procedido a la ejecución de sentencias condenatorias mediante la práctica de 6 liquidaciones con un importe por responsabilidad civil de 6,5 millones y de 1,7

- Gainera, 2018ko ekitaldian, 2 txosten igorri dizkio BFOk Zerga Ministerioari, non Ogasun Publikoaren kontrako delituak egin izanaren zantzuak antzeman diren. A ello hay que añadir la remisión de otros 2 informes con indicios de la comisión de otros delitos distintos del delito contra la Hacienda Pública.

C.2) Kudeaketa eta Ikuskaritza organoek honakoei buruzko egiaztapenak, azterketak eta arautzeak egin dituzte:

- Nazioartekotutako enpresa taldeen kontrola, zehazki:

  — Taldeak ezarritako transferentzia-prezioen politikaren analisia, Bizkaian presentzia duten 3 talde multinazionali dagokienez.

  — Hurrengo urteetan konpentsatu beharreko 69,5 milioi euroko zerga-oinarri negatiboak minoratzea 600.000 euroko egiazko sarrera batekin, beste talde multinazional bati dagokionez. Halaber, zerga-egoitza Bizkaira aldatu duten 26 zergadunek konpentsatzeke dauzkaten zerga-oinarri negatiboak berrikusten ari dira.

  — 7 sozietateri eta 4 “tax rulling”i buruzko informazioa lortzeko jarduketak, 4 talde multinazionali eragiten dietenak. Sozietate horietan azpikapitalizazioaren araua aplika liteke.

- 2 enpresa handiri buruzko jarduketak amaitu dira. Haien xedea BEZean eta Sozietateen gaineko Zergan egindako tributazioa egiaztatzea zen eta emaitza sartu beharreko 697.723 euro izan da.

- Ekonomia-jardueren tributazioaren osoko kontrolerako jarduketak, kontzeptu hauei lotuta:

  — Alegiazko kopuruak jasandako BEZ kuotengatik eta Sozietateen gaineko Zergako gastu kengarriengatik, 48 zergapekori dagokienez, 2,9 milioikoak. Era berean, jarduketak amaitu dira ikuskapen planean sartutako 7 zergapekoei lotuta.

millones de euros en concepto de intereses.

- Además, en el ejercicio 2018, la HFB ha remitido al Ministerio Fiscal 2 informes en los que se ha apreciado la existencia de indicios de la comisión de delitos contra la Hacienda Pública. A ello hay que añadir la remisión de otros 2 informes con indicios de la comisión de otros delitos distintos del delito contra la Hacienda Pública.

C.2) Comprobación, investigación y regularización por parte de los órganos de gestión e inspección, en relación a:

- Control de los grupos empresariales internacionalizados, en particular:

  — Analisis de la politica de precios de transferencia implantada por el grupo, de 3 entidades de grupos multinacionales con presencia en Bizkaia.

  — Minoración de bases imponibles negativas a compensar en años siguientes de 69,5 millones de euros con un ingreso efectivo de 600.000 euros, de otro grupo multinacional. Asimismo, se estan revisando las bases imponibles negativas pendientes de compensar de 26 contribuyentes que han cambiado de domicilio fiscal a Bizkaia.

  — Actuaciones de de obtención de información respecto de 7 sociedades en las que podría aplicarse la regla de subcapitalizacióny sobre 4 “tax rulings” que afectan a 4 grupos multinacionales.

- Han finalizado actuaciones sobre 2 grandes empresas con el objeto de comprobar su tributación en IVA y en Impuesto sobre Sociedades con un resultado a ingresar de 697.723 euros.

- Realización de actuaciones de control integral sobre la tributación de actividades económicas en relación a los siguientes conceptos:

  — Cantidades ficticias en concepto de cuotas de IVA soportado y de gastos deducibles en el Impuesto sobre Sociedades respecto de 48 obligados tributarios por importe de 2,9 millones. A su vez, se han finalizado actuaciones respecto de 7 obligados tributarios incluidos en Plan de Inspección.

— Faktura irregularrak edo benetako edukirik gabeak. 16 zergapeko erregularizatu dira ia milioi bat eurorengatik eta 23 zergapekori lotutako jarduketak amaitu dira.

— Balio erantsi handiko zerbitzugintzei buruzko informazioa lortzeko jarduketak 114 zergapekori dagokienez, zenbatekoa 4,8 milioi eurokoa izan zelarik.

— Doikuntza negatiboak zerga-oinarrian. 15 zergapekori lotutako jarduketak amaitu dira, zenbatekoa 10,15 milioikoa izan zelarik, 20,24 milioiko etekin gehigarri batekin, datozen ekitaldietan aplikatzeke dauden pizgarriak eta zerga-kredituak murrizteagatik.

— Enpresa berregituratzeko eragiketak 56 zergapekori dagokienez, zenbatekoa 8,9 milioikoa izan zelarik.

— Arriskuko sektoreetan diharduten zergapekoak. Jarduketak egin dira 22 zergapekori lotuta, zenbatekoa ia 6 milioikoa izan zelarik, eta ia milioi erdi euroko etekin gehigarria lortu da.

— Salbuespen partziala duten erakundeak. 19 zergapekori lotutako jarduketak egin dira.

- Aldian behin aitortu beharreko zergen autolikidaziorik aurkeztu ez duten zergadunak. Jarduketa horiek OFSko zergen kudeaketa organoekin batera egiten da, zehazki:

— PFEZrenak: aitorpenik aurkeztu ez zutenei 6.394 errekerimendu egin zitzaizkien. Ondorioz, 939 likidazio-proposamen egon ziren, eta 120 zehapen-proposamen, zenbatekoa guztira 1,94 milioi eurokoa izan zelarik.

— Ondarean gaineko Zergarenak: Aitorpenik aurkeztu ez zutenei 113 errekerimendu egin zitzaizkien. Ondorioz, 367.043 euroko zenbatekoa izan zuten autolikidazioak egon ziren.

— Sozietateen gaineko Zergan: 2.163 errekerimendu bidali dira eta horiei esker, 799 autolikidazio aurkeztu ziren, 20

— Facturas irregulares o sin contenido real. Se han regularizado a 16 obligados tributarios por importe de casi un millon de euros y se han finalizado actuaciones respecto de 23 obligados tributarios

— Actuaciones de obtención de información de prestaciones de servicios de alto valor añadido respecto de 114 obligados tributarios por importe de 4,8 millones de euros.

— Ajustes negativos a la base imponible. Se han finalizado actuaciones respecto de 14 obligados por importe de 10,15 millones con un rendimiento adicional de 20,24 millones por reducción de incentivos y créditos fiscales pendientes de aplicar en ejercicios futuros.

— Operaciones de reestructuración empresarial respecto de 56 obligados tributarios por importe de 8,9 millones.

— Obligados tributarios que desarrollan su actividad en sectores de riesgo. Se han realizado actuaciones respecto de 22 obligados tributarios por importe de casi 6 millones de euros más un rendimiento adicional de casi medio millón de euros.

— Entidades parcialmente exentas. Se han realizado actuaciones respecto de 19 obligados tributarios.

- Obligados tributarios que no han presentado autoliquidación de los impuestos de declaración periódica. Estas actuaciones se realizan conjuntamente con los órganos de Gestión de los diferentes tributos del DHF, en particular:

— De IRPF: 6.394 requerimientos a no presentadores, que ha derivado en 939 propuestas de liquidación y 120 propuestas de sanción por un importe total de 1,94 millones de euros.

— De I. Patrimonio: 113 requerimientos a contribuyentes no presentadores, que han derivado en autoliquidaciones por importe de 367.043 euros.

— En el I. Sociedades: se han emitido 2.163 requerimientos que han derivado en la presentación de 799 autoliquidaciones y en

likidazio-proposamen egon ziren eta 20 zehapen-proposamen; guztira 973.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa sortu zen.

— BEZean: 2,78 milioi euroko 2.211 errekerimendu egin dira.

- Aldizkako aitorpenekoak ez diren zergen autolikidaziorik aurkeztu ez zituzten zergadunak, zehazki Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarenak. Horregatik, 2.340 errekerimendu egin zaizkie aitorpenik aurkeztu ez dutenei; hortik 1.757 autolikidazio, 5 likidazio-proposamen eta 3 zehapen-proposamen atera dira, zenbatekoa 2,7 milioi eurokoa izanik guztira.
- Era berean, jarduketak amaitu dira ikuskapen planean sartutako 122 zergapekori lotuta, sartzeko 16,9 euroko emaitza eta datozen ekitaldietan aplikatzeke dauden pizgarriak eta zerga-kredituak murrizteagatik 0,7 euroko etekin gehigarria lortuz.
- PFEZean, Sozietateen gaineko Zergan eta BEZean zergapekoek egindako itzulketa eskaeren kontrola areagotzea. 48 milioi euroko zerga-aurrezkia ekarri du horrek ia. Era berean, egiaztatzeko prozedurak amaitu dira, ikuskapen planean sartutako 33 zergapekori dagokienez, eta emaitza 2.987.199 eurokoa izan da, sartzeko. Horrez gain, beste 5.283.791 euroko errendimendua lortu da, kuota terminoetan adierazita, geroko ekitaldietan aplikatzeke dauden pizgarri eta kreditu fiskalen murrizpenaren zioz.
- Zenbait urtez BEZean konpentsatzeko kopuruak frogatzen dituzten pertsonak edo erakundeak. Emaitza sartu beharreko 18 likidazio izan dira.
- Lan-errenten eta kapital higiezinaren kontuetan atxikipenak eta sarrerak praktikatu eta sartzera behartuta daudenen gaineko kontrola areagotzea; 1.440 likidazioko emaitza 1,82 milioiko atxikipenak direla-eta.
- Zerga onura batzuk egiaztatzen dituzten autolikidazioak kontrolatzeko jarduketak, sortzen diren ekitaldian bertan aplikatu beharrekoak izan zein ez, edo aurreko aldietan

20 propuestas de liquidación y otras 20 de sanción por importe conjunto de más de 973 mil euros.

— En IVA: se han realizado 2.211 requerimientos por importe de 2,78 millones de euros.

- Obligados tributarios que no hubieran presentado autoliquidación de los impuestos que no sean de declaración periódica, en particular, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados. Por ello, se han efectuado 2.340 requerimientos a no presentadores, dando lugar a 1.757 autoliquidaciones, 5 propuestas de liquidación y 3 propuestas de sanción por importe total de 2,7 millones de euros.
- A su vez, se han finalizado actuaciones respecto de 122 obligados tributarios incluidos en Plan de Inspección con un resultado a ingresar de 16,9 millones, además de un rendimiento adicional de casi 0,7 millones de euros por reducción de sus incentivos y créditos fiscales pendientes de aplicar en ejercicios futuros.
- Intensificación del control de las solicitudes de devolución formuladas por obligados tributarios, tanto de IRPF como del Impuesto sobre Sociedades e IVA, que se ha materializado en un ahorro fiscal de casi 48 millones de euros. A su vez, se han finalizado los procedimientos de comprobación en 33 obligados tributarios incluidos en Plan de Inspección con un resultado a ingresar de 2.987.199 euros. Además, se ha obtenido un rendimiento adicional de 5.283.791 euros expresado en términos de cuota por reducción de sus incentivos y créditos fiscales pendientes de aplicar en ejercicios futuros.
- Personas o entidades que acrediten cantidades a compensar en el IVA durante varios años con el resultado de 18 liquidaciones a ingresar.
- Intensificación del control sobre obligados a practicar e ingresar retenciones e ingresos a cuenta sobre las rentas del trabajo y del capital inmobiliario, que ha tenido como resultado 1.440 liquidaciones por retenciones que ascienden a 1,82 millones.
- Actuaciones para el control de autoliquidaciones en las que se acrediten beneficios fiscales, sean o no objeto de aplicación en el propio ejercicio de generación o

egiaztatutako kengarriak edo bestelako zerga-pizgarriak bateratzeko betekizunak betetzeko epea amaitzen direnean.

— PFEZean: 172.953 aitorpen berrikusi dira, eta likidatutako zenbatekoa 1,48 milioi eurokoa izan da.

— Sozietateen gaineko Zergan: 93 likidazio egin dira, aktibo ez-korronte berrietako inbertsioengatiko eta I+G+b jardueretako kenkariei lotuta, eta 1,08 milioi euroko zerga-aurrezpena lortu da.

- Tributazio ehunekoak egiaztatzea, Sozietateen gaineko Zerga nahiz BEZa foru zergen administrazioei eta lurralde erkidegoko administrazioari ordaintzen dizkieten zergapekoen kasuan, lurralde horietako bakoitzean eginiko eragiketen bolumenaren proportzioan. Guztira 46 prozedura bukatu dira, orotara BFOk 174 milioi euro ordaintzeko.

- Ekonomia Itunaren lotuneen aplikazio zuzena. 22 prozedura amaitu dira eta emaitza 21,11 milioi eurokoa izan da, sartzeko.

- Zerga-aitorpenak aurkeztean zergadunek aitortutako dituzten datuak eta hirugarrenek, beren betebeharra betez, haiei buruz eman dituzten datuak bat ez datozenean. Batera 25,8 milioi euroko zerga-aurrezpena eragin du horrek PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta BEZaren kudeaketan. Halaber, 10 ikuskapen prozedura eta jarduera amaitu dira. Emaitza 853.989 eurokoa izan da, sartzeko, eta zerga-pizgarrien 7.505 euroko minorazio bat.

- Kanpoko zeinuen bidez justifikatu gabeko ondare-irabaziak hautematea. Ikuskapen planean sartutako 23 zergapekori lotutako egiaztapen eta ikerketa prozedurak amaitu dira eta emaitza 1,42 milioikoa izan da, sartzeko. Horrez gain, beste 56.249 euroko errendimendua lortu da, geroko ekitaldietan aplikatzeke dauden pizgarri eta kreditu fiskalen murrizpenaren zioz.

- Oso pertsonalak diren zerbitzuak fakturatzeko erabiltzen diren sozietateak ezartzeko

en las que venzan los plazos para el cumplimiento de los requisitos de consolidación de deducciones u otros incentivos fiscales acreditados en periodos anteriores:

— En IRPF: Se han revisado 172.953 declaraciones con un importe liquidado de 1,48 millones de euros.

— En el I. Sociedades: Se han practicado 93 liquidaciones relacionadas con deducciones por inversión en activos no corrientes nuevos y de actividades de I+D+i, con un ahorro fiscal de 1,08 millones de euros

- Comprobación de los porcentajes de tributación en aquellos obligados tributarios que tributen, tanto en el Impuesto sobre Sociedades como en el IVA, a las Administraciones Tributarias forales y a la Administración de territorio común en proporción al volumen de operaciones realizado en cada uno de estos territorios. Se han finalizado 46 procedimientos por importe a ingresar por la HFB de 174 millones de euros.

- Correcta aplicación de los puntos de conexión del Concierto Económico. Se han finalizado 22 procedimientos con un resultado a ingresar de 21,11 millones de euros.

- Obligados tributarios que han presentado declaraciones fiscales con incoherencias entre los datos declarados en las mismas y/o la información suministrada por terceros en cumplimiento de la obligación existente. Esto ha motivado en la Gestión de IRPF, Impuesto sobre Sociedades e IVA un ahorro fiscal conjunto de 25,8 millones de euros. Asimismo se han finalizado 10 procedimientos y actuaciones de inspección con resultado a ingresar de 853.989 euros más y una minoración de incentivos fiscales por importe de 7.505 euros.

- Detección a través de signos externos de la existencia de ganancias patrimoniales no justificadas. Se han finalizado procedimientos de comprobación e investigación respecto de 23 obligados tributarios incluidos en Plan de Inspección con un resultado a ingresar de 1,42 millones. Además, se ha obtenido un rendimiento adicional de 56.249 euros por reducción de sus incentivos y créditos fiscales pendientes de aplicar en ejercicios futuros.

- Control de las actividades de interposición de sociedades a través de las cuales se facturen servicios personalísimos y verificación de las

jardueren kontrola eta ondare sozietateen aitorpenak zuzenak direla egiaztatzea. 22 profesionalen kuota erregularizatuak 1,2 milioi eurokoak izan dira. Bestalde, 57 zergapekoren ikuskapen-prozedurak amaitu dira eta sartzeko 4 milioi atera dira. Horrez gain, beste 203.041 euroko errendimendua lortu da, geroko ekitaldietan aplikatzeke dauden pizgarri eta kreditu fiskalen murrizpenaren zioz.

- Higiezinen sektorearekin lotutako negozioen zerga-ordainketen kontrol integrala. Zehazki, 539 likidazio eta 167 zehapen egin dira pertsona fisikoek higiezinak errentatzearen tributazioari lotuta, zenbatekoa 608.998 eurokoa izanik. Gainera, 17 zergapekori lotutako jarduketak amaitu dira, emaitza 587.613 eurokoa izanik, sartzeko, eta 155.114 euroko errendimendu gehigarria, geroko ekitaldietan aplikatzeke zeuden zerga-pizgarri eta –kredituen kuotari dagokionez.

- Barne-eremuko nahiz Europako Batasuneko beste estatuetako ibilgailuen eskualdaketen gaineko kontrola, Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezian eta beste zerga batzuetan iruzurrik gerta ez dadin, eta 145.133 euroko emaitza lortu da.

- Zerga-zorrak ordaintzean luzapenak edo banatzeak eskatzen zituzten eskariak aztertzea, zor horiek kobratzeko epe boluntarioan edo exekutiboan daudenean.

- Zorrak ordaintzean hirugarren pertsona arduradunari elkartasuneko erantzukizuna edo subsidiarioa desbideratzeko jarduketak. Erantzukizuna aitortzeko 346 akordio egin dira, 463 zergapekori eragiten dietenak, zenbatekoa 34,6 milioi eurokoa izanik guztira. Gaimera, enpresa-administratzaileei bideratzeko 79 akordio eman dira, zenbatekoa 0,7 milioi eurokoa izanik. Berritasun gisa, enpesaren jarduera formalki utzi gabe sarrerarik gabeko autolikidazioak aurkeztearen erantzukizun subsidiarioa derbiatzeko espedineteak izapidetzen hasi da. 2018an guztira 5,5 milioi euro sartu dira likidazio deribatuengatik.

- Hartzekodunen konkurtsoan zergapekoak

correctas declaraciones de las sociedades patrimoniales. Las cuotas regularizadas respecto de 22 profesionales han sido de 1,2 millones de euros. Por otro lado, se han finalizado los procedimientos inspectores de 57 obligados tributarios, con un resultado a ingresar de 4 millones. Además, se ha obtenido un rendimiento adicional de 203.041 euros por reducción de sus incentivos y créditos fiscales pendientes de aplicar en ejercicios futuros.

- Control Integral de la tributación de los negocios relacionados con el sector inmobiliario. En particular,se han practicado 539 liquidaciones y 167 sanciones relacionadas con tributación del arrendamiento de inmuebles por personas físicas por importe total de 608.998 euros Además, se han finalizado actuaciones respecto de 17 obligados tributarios con un resultado a ingresar de 587.613 euros , además del rendimiento adicional de 155.114 euros en términos de cuota de sus incentivos y créditos fiscales pendientes de aplicar en ejercicios futuros.

- Control de las transmisiones de vehículos, procedentes tanto del ámbito interno como de otros estados de la Unión Europea, tendentes a evitar la comisión de fraude en el Impuesto sobre el Valor Añadido, en el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte y en otros tributos con un resultado de 145.133 euros.

- Estudio de solicitudes de aplazamientos o fraccionamientos en el pago de deudas tributarias tanto en periodo voluntario como en periodo ejecutivo de cobro.

(% 10,5) eta inportazioengatik doikuntzan (% 0,9); bien bitartean, barne eragiketengatik doikuntzak behera egin du (–% 44, lehen aipatu den bezala). Horregatik, 2018. urtean diru-bilketa likidoa % 3,87 jaitsi da (118,41 milioi euro gutxiago). Zerga-bilketa horretan sartzen dira, baina zeinu negatiboarekin, BEZaren lurralde arteko konpentsazioa dela-eta Bizkaiak beste bi aldundiei ordaindutako 608,46 milioiak, Ekarpenei buruzko Legearen ondoriozko doikuntza dela-eta.

gestión propia (10,5%) y en el Ajuste por Importaciones (0,9%), mientras que desciende el Ajuste por Operaciones Interiores (-44% tal como se ha dicho anteriormente). Por ello en el año 2018 disminuye la recaudación líquida con un 3,87% (118,41 millones de euros menos). Se incluye en esta recaudación, pero con signo negativo los 608,46 millones pagados por Bizkaia a las otras dos Diputaciones Forales en concepto de Compensación Interterritorial de IVA, ajuste derivado de la Ley de Aportaciones.

Bestalde, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren bilketa garbia 103,15 milioikoa izan da 2018. urtean, eta, 2017. urteari dagokionez, % 22,19 gehitu da (18,73 milioi euro gehiago). Hala ere, higiezinen merkatuak azken urteetan bizi izan duen egoera kaxkarra eta EJDren barruko sozietate-eragiketetarako ezarritako salbuespenak direla-eta, bilketaren datuak oso urruti daude 2010ean lortu zirenetatik, esaterako. Urte hartan kontzeptu honengatik 173 milioi euro bildu ziren, beraz, 8 urtetan diru-bilketaren % 40,50 gutxiago da.

Por su parte, la recaudación neta del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y AJD en 2018 ha sido de 103,15 millones, con un incremento del 22,19% respecto al año 2017 (18,73 millones de euros más). No obstante, debido a la precariedad del mercado inmobiliario en los últimos años y las exenciones establecidas para las Operaciones Societarias dentro de AJD, las cifras de recaudación están muy alejadas de las del año 2010, por ejemplo. En ese año se recaudaron por este concepto 173 millones, lo cual supone un 40,50% menos de recaudación en 8 años.

Eskualdaketen gaineko zergak pisu espezifiko handiagoa duela nabarmendu behar da, beraren bilketak guztizko zenbatekoaren ia % 78 egiten baitu, eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren bilketak % 22 baino ez.

Destacar el mayor peso específico del Impuesto sobre Transmisiones cuya recaudación representa casi el 78% del total de ambos, frente al 22% del correspondiente a los AJD.

Eskualdaketen gaineko zerga % 19,2 hazi da eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga % 34,2.

El Impuesto sobre Transmisiones incrementa un 19,2% su recaudación y un 34,2% el Impuesto de Actos Jurídicos Documentados.

Zerga berezien ziozko zerga-bilketa garbia % 1 jaitsi da, hots, 7,36 milioi euro gutxiago bildu dira.

La recaudación neta de los Impuestos Especiales ha descendido un 1% lo que suponen 7,36 millones de euros menos.

2013tik aurrera hidrokarburoen txikizkako salmenten gaineko zerga hidrokarburoen gaineko zergan sartu da, nahiz eta aurreko urteetako hondar negatiboak sortzen jarraitzen duen. Aurreko ekitaldian bezala, honetan bilketaren zenbatekoa negatiboa izan da, osasuneko zentimoaren erreklamazioengatiko itzulketa dela-eta 4,96 milioi euroko zenbatekoan egindako itzulketengatik. Negatibotasunak % 28,49 egin du gora.

El Impuesto sobre Ventas Minoristas de Hidrocarburos a partir de 2013 se diluye dentro del Impuesto sobre Hidrocarburos, aunque sigue generando restos negativos de años anteriores. En este ejercicio ha tenido, al igual que en los anteriores, un importe de recaudación negativo, debido a las devoluciones efectuadas, por importe de 4,96 millones de euros por las reclamaciones del céntimo sanitario, con un aumento de la negatividad del 28,49%.

Zerga Berezien ziozko bilketa garbi osoa (alegia, kudeaketa propioa gehi lurralde arteko doikuntza gehi inportazioak eta barne-eragiketak direla-eta estatuarekin egindako doikuntzak) 728,59 milioi eurokoa izan da 2018an. Horrek esan nahi du % 1 murriztu dela (7,36 milioi euro gutxiago) aurreko ekitaldiko aldean.

La recaudación neta total por Impuestos Especiales, es decir, gestión propia, más ajuste interterritorial, más ajustes con Estado por importaciones y operaciones interiores, alcanza en 2018 la cifra de 728,59 millones de euros que supone un descenso del 1% (7,36 millones de euros menos) respecto al ejercicio precedente.

Zifra hori honela osatuta dago: kudeaketa propioko 880,68 milioiko zerga-bilketa (beste lurralde historikoekiko lurralde arteko -478,76ko doikuntzak barne) eta Estatuarekiko doikuntza negatiboa, -152,09 milioikoa.

Esta cifra se desdobla en una recaudación de 880,68 millones por gestión propia (incluidos ajustes interterritoriales con los otros Territorios Históricos por importe de -478,76 millones) y un ajuste de carácter negativo con el Estado por importe de -152,09 millones.

Zerga bereziak osatzen dituzten zerga kontzeptu guztien artean, kudeaketa propioko bilketa garbiak (lurralde arteko doikuntzak barne eta estatuarekiko doikuntzak kanpo) gora egin du zerga guztietan, alkohol eta edarien gaineko zergan eta hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren erkidegoko tasan izan ezik; izan ere, % 35,6 eta % 126,3 gutxitu dira, hurrenez hurren. Gehien hazi den zerga berezia bitarteko produktuei buruzkoa da (2017. urtean baino % 43,7 gehiago), zenbatekoak zerga berezien guztizkoaren gainean oso esangarriak ez izan arren.

Dentro de los distintos conceptos tributarios que configuran los Impuestos Especiales, la recaudación neta por gestión propia (incluidos ajustes interterritoriales y excluidos ajustes con el Estado) sufre ascenso en todos los impuestos excepto en el Impuesto Especial sobre Alcohol y Bebidas derivadas que disminuye en 35,6% y en el Tipo autonómico del Impuesto Especial sobre Hidrocarburos con un 126,3% menos. El impuesto especial que sufre un mayor ascenso es el Impuesto especial sobre Productos Intermedios con un 43,7% más que en 2017 aunque sus cuantías son poco significativas en el total de IIEE.

Zerga-bilketaren garrantziari dagokionez, hidrokarburoen gaineko zerga berezia eta tabako gaien gaineko zerga berezia dira garrantzitsuenak. Horrenbestez, bien arteko baterako bilketak zerga berezien guztizkoaren % 94 osatzen du, doiketen aurretik.

Por su importancia recaudatoria el I.E sobre Hidrocarburos y el I.E. sobre Labores del Tabaco son los de mayor magnitud. Así, la recaudación conjunta de ambos impuestos representa el 94% de la recaudación total de Impuestos Especiales antes de ajustes.

Hidrokarburoen gaineko zergaren kudeaketa propioagatik egindako bilketa garbiak (tasa autonomikoaren zatia kontuan hartu gabe eta ekarpenei buruzko legearen lurraldeen arteko doikuntza kenduta) 7,19 milioi euro egin du gora, eta 652,40 milioi eurora iritsi da.

La recaudación neta por gestión propia del Impuesto sobre Hidrocarburos (sin incluir los ingresos del tramo a tipo autonómico y descontado el ajuste interterritorial Ley de Aportaciones) ha aumentado en 7,19 millones de euros, hasta un total de 652,40 millones de euros.

Era berean, hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren bilketaren zenbateko garbia (kudeaketa propioa gehi estatuarekiko -195,80 milioiko doikuntzak eta zati autonomikorik gabe) 456,60 milioi eurokoa izan da. Horrenbestez, % 3ko jaitsiera izan du. Zerga berezien bilketa garbi osoaren % 62,67 izan da.

Igualmente, el importe neto de la recaudación por el I.E. sobre Hidrocarburos, gestión propia más ajustes con el Estado, estos últimos por un importe de -195,80 millones, y sin tramo autonómico, ha sido de 456,60 millones de euros, con un descenso del 3%. Su peso sobre el total de la recaudación neta de Impuestos Especiales es del 62,67%.

Hidrokarburoen gaineko zerga berezia (tasa autonomikoaren zatia) figura berriak epe luzera zero sarrera garbia sortu behar du, sarrera hori autonomia erkidegoei itzuli behar zaielako, horiek baitira produktuaren hartzaileak eta zero ez den tasa autonomikoa dute ezarrita. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako tasa % 0 da, eta, beraz, zati horrek ez du sarrerarik sortzen. Hala ere, figura horrengatiko bilketa -109.451 euro negatiboa izan da 2018an (estatuarekiko doikuntzak barne).

El Impuesto Especial sobre Hidrocarburos tramo tipo Autonómico, es una nueva figura que a largo plazo debe generar un ingreso neto de cero ya que el ingreso debe ser devuelto a las Comunidades Autónomas receptoras del producto y que tienen establecido un tipo autonómico distinto de cero. Actualmente, el tipo establecido en la Comunidad Autónoma Vasca es del 0%, por lo que este tramo no genera ningún ingreso. No obstante, en este ejercicio 2018, la recaudación por esta figura (incluidos ajustes con el Estado) fue negativa, -109.451 euros.

Tabako gaien gaineko zerga bereziaren kasuan, zerga-bilketa garbiaren eta barne-doikuntzaren batura aurreko ekitaldietakoa baino txikiagoa izan da, 177,45 milioi hain zuzen, baina 187,94 milioira handitzen da estatuarekiko 10,49 milioiko doikuntza batzen zaionean, eta zerga berezien zenbateko osoan % 25,80ko pisu espezifikoa du.

En el caso del Impuesto Especial sobre Labores del Tabaco, su recaudación neta más el ajuste interno ha sido inferior a la de ejercicios anteriores, 177,45 millones, y se incrementa hasta los 187,94 millones al agregar el ajuste con el Estado de 10,49 millones y su peso específico en el total de Impuestos Especiales ha sido del 25,80%.

Azkenik, fluor gasen gaineko zergari eta joko jardueren gaineko zergari dagokienez, bi zerga horien bilketa ezarri zenetik bosgarren ekitaldi honetan, 1,62 milioi euro izan da (aurreko ekitaldian baino % 8,97 gutxiago) eta 2,91 milioi euro, hurrenez hurren (% 16,60 gehiago).

Por último, en relación al Impuesto sobre gases fluorados y al Impuesto sobre actividades de juego, la recaudación de estos dos impuestos, en este quinto ejercicio de implantación, ha sido de 1,62 millones de euros (un 8,97% menos que en el ejercicio anterior) y 2,91 millones de euros, respectivamente (un 16,60% más).

20. taula / Cuadro nº 20
Estatuarekiko BEZaren eta Zerga Berezien doiketak
Ajustes IVA e Impuestos Especiales con el Estado

	2018	2017	2016
Inportazioak Importaciones	561.237.856	556.423.442	503.193.806
Barneko eragiketak Operaciones interiores	333.346.664	595.656.905	174.343.573
BEZ doiketak guztira Total ajuste IVA	894.584.520	1.152.080.347	677.537.379
Inportazioak Importaciones	234.032	256.539	144.734
Barneko eragiketak Operaciones interiores	-152.327.492	-130.783.118	-125.436.875
Zerga Berezien doiketak guztira Total ajustes Impuesto Especiales	-152.093.460	-130.526.579	-125.292.142
		Zenbatekoa eurotan / Importe en euros	

BEZa azpimarratu behar da, zeharkako zerga nagusia baita. Beraren bidez, 2018an 2.939,6 milioi euro garbi bildu dira, hau da, zeharkako zerga guztien % 77,07 eta zerga itunduen bidez ekitaldian bildutako kopuru likido osoaren % 36,33 (estatuarekiko doiketak barne)

Resaltar, que el impuesto indirecto de mayor peso específico, IVA, cuya recaudación neta en 2018 se eleva a 2.939,6 millones de euros, representa el 77,07% de los Impuestos Indirectos y el 36,33% de la recaudación líquida total del ejercicio por tributos concertados (incluidos Ajustes con el Estado).

BEZaren guztizko bilketa garbia honela dago osatuta:

Este total de recaudación neta por IVA está compuesto por:

- 3.389,09 milioi euroko zerga-bilketa osoak 294,63 milioi euroko gehikuntza dakar, hots, % 9,52koa.

- La recaudación íntegra de 3.389,09 millones de euros, que refleja un aumento de 294,63 millones, un 9,52%.

- Aurreko ekitaldietako hondarrak: 72,73 milioi eurok 6,07 milioi euroren murrizketa dakarte (% 7,7).

- Los residuos de ejercicios anteriores: 72,73 millones reflejan una disminución de 6,07 millones, el 7,7%.

- 199,89 milioi itzuli dira (bestelako aldundiekin barneko doikuntzak kenduta), beraz, 75,66 milioi gutxiago dira (% 27,46).

- Devoluciones (descontados los ajustes internos con otras Diputaciones) por importe de 199,89 millones que supone 75,66 millones menos, un 27,46%.

- IInportazioak direla-eta Estatuko Administrazioarekin egindako doikuntza: 561,24 milioi. Kontzeptu horretan 4,81 milioi euroko gorakada egon da, % 0,87, alegia.

- Ajuste por importaciones con la Administración del Estado: 561,24 millones. Este concepto experimenta un aumento de 4,81 millones, un 0,87%.

- Barruko eragiketak direla eta Estatuko Administrazioarekin egindako doikuntza: 345,15 milioiko sarrerak, 11,81 milioi euroko itzulketak. Horrek eragin du kontzeptu horregatik sortutako sarrera garbia 333,35 milioi eurokoa izatea, hortaz, % 44 gutxitu da.

- Ajuste por operaciones interiores con la Administración del Estado: con unos ingresos de 345,15 millones y unas devoluciones de 11,81 millones de euros, lo que ha supuesto un ingreso neto por este concepto de 333,35 millones de euros con un descenso del 44%.

- Barne-doikuntza beste foru aldundiekin: -608,46 milioi euro, 2017an baino 112,57 milioi

- Ajuste interno con las otras Diputaciones Forales: -608,46 millones de euros, 112,57

gehiago. Horietatik 161,95 milioi Arabari dagozkio eta 446,51 Gipuzkoari.

millones más que en 2017. De los cuales 161,95 millones correspondieron a Álava y 446,51 a Guipúzcoa.

Zerga bereziei dagokienez, barneko eragiketak eta inportazioak direla-eta Estatuarekin egindako doikuntzen guztizko batura negatiboa da 2018an, hain zuzen ere -152,09 milioi eurokoa, eta negatibotasuna % 16,52 handitu da. Arrazoia izan da barneko eragiketak direla-eta egindako doikuntzaren negatibotasuna. Esan beharra dago estatuarekiko doikuntzen zenbateko oso hori beti izan dela negatiboa, Hidrokarburoen gaineko zergari barneko eragiketengatik egin beharreko doikuntzaren eraginez, CLH Bizkaian kokatuta dagoelako.

La suma total de los Ajustes con el Estado por operaciones interiores y por importaciones, relativos a los Impuestos Especiales, en 2018, es negativa por importe de -152,09 millones de euros con un aumento en la negatividad del 16,52%, debido al aumento en la negatividad del ajuste por operaciones interiores. Hay que decir que este total de Ajustes con el Estado tradicionalmente es negativo por el efecto del Ajuste por operaciones interiores del Impuesto sobre Hidrocarburos debido a la radicación de CLH en Bizkaia.

Beste foru aldundiekiko lurraldeen arteko doikuntzei dagokienez, BEZaren, zerga berezien, hidrokarburoen txikizkako salmenten gaineko zergaren eta Ekoizpen elektrikoaren gaineko zergaren batura –1.096,90 milioi eurokoa da. Horietatik 270,34 milioi euro Arabari dagozkio eta 826,56, aldiz, Gipuzkoari.

En lo referente a los ajustes interterritoriales con las otras Diputaciones Forales, la suma total por IVA, Impuestos Especiales, Impuesto sobre Ventas Minoristas de Hidrocarburos y el Impuesto sobre la Producción Eléctrica es de –1.096,90 millones, de los cuales 270,34 millones corresponden a Álava y 826,56 a Gipuzkoa.

Azkenik, diru-sarreren ikuspegitik Bizkaiko Foru Aldundiko Kontu Orokorraren emaitzak aztertzeari eutsiz, aurrekontu bateginaren datuekin (ohikoa gehi itxiak), zerga sarreren (I., II. eta III. kapituluak) garrantzi espezifikoa sarrera ez-finantzario guztien % 98,65 da. Hiru kapitulu horietako sarreren batura 2017an 7.600,74 milioi euro izatetik 2018an 7.828,59 milioi izatera igaro da, hau da, % 3ko gehikuntza izan du, 227,86 milioikoa hain zuzen. Aldaketa hori positiboa izatearen arrazoia da PFEZren bilketa (86,85 milioi gehiago) eta sozietateen gaineko zergaren bilketa (261,57 milioi gehiago). Bi horiekin BEZaren jaitsiera (118,41 milioi gutxiago) orekatu da.

Por último, y siguiendo con el análisis de los resultados de la Cuenta General de la Diputación Foral de Bizkaia en su vertiente de ingresos, con datos del Presupuesto refundido (corriente más cerrados), destacar que el peso específico de los ingresos tributarios (Capítulos I, II y III) representa una participación del 98,65% del total de los ingresos no financieros. El ingreso conjunto de estos tres capítulos pasa de 7.600,74 millones de euros en 2017 a 7.828,59 millones en 2018, lo que supone un aumento de 3% cuantificado en 227,86 millones. Dicha variación ha sido positiva debido fundamentalmente al incremento en la recaudación del IRPF (86,85 millones más) y en la recaudación del Impuesto sobre Sociedades (261,57 millones más), que han conseguido compensar el descenso del IVA (118,41 millones menos).

Zerga itunduengatik diru-bilketa garbi osoan, tasak eta bestelako diru-sarrerak (BFAren kontu orokorraren I., II. eta III. kapituluak) barne, zerga nagusien garrantzi erlatiboari dagokionez, 2018. urtean PFEZren ehunekoa egonkor mantendu da, aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero (% 35,28, 0,08 puntu gehiago), sozietateen gaineko zerga arinki hazi da % 11,68ra iritsi arte eta BEZa (kudeaketa propioa gehi doikuntzak) % 37,55era jaitsi. Zerga bereziek apur bat murriztu dute beren partaidetza (% 9,31), dohaintzen eta oinordetzeen zergak bere partaidetza % 0,8n mantendu du eta ondare eskualdaketak nahiz egintza juridiko dokumentatuak arinki igo dira (% 1,32).

Con referencia al peso relativo de los principales impuestos en la recaudación neta total por tributos concertados incluidas las tasas y otros ingresos, (Capítulos I, II y III de la Cuenta General de la DFB) en 2018, el porcentaje de IRPF se mantiene estable respecto al ejercicio anterior (35,28%, 0,08 puntos más), el Impuesto sobre Sociedades sube ligeramente hasta el 11,68%, y el IVA (gestión propia más ajustes) baja hasta un 37,55%. Los Impuestos Especiales disminuyen ligeramente su participación hasta el 9,31%, el Impuesto sobre Donaciones y Sucesiones mantiene su participación en el 0,8% y Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados sube ligeramente hasta el 1,32%.

IV. kapituluan (transferentzia arruntak) Aldundiak eragiketa arruntak finantzatzeko jasotako baliabideak daude, baliabide baldintzatuak zein baldintzatu gabekoak. Kapitulu hori nabarmenki handitu da (% 57,56) 2018an, 97,77 milioi euroraino. Haren guztizko zenbatekoak osagai hauek ditu: estatuaren transferentziak (% 48,82), EAErenak (% 31,92), Bizkaiko Lurralde Historikoarenak (% 3,94) eta

El Capítulo IV, Transferencias Corrientes, que incluye los recursos condicionados o no, recibidos por la Diputación para la financiación de operaciones corrientes, experimenta en 2018 un notable descenso del 57,56% hasta los 97,77 millones. Su importe total lo integran las Transferencias recibidas del Estado (48,82%), de la C.A. de Euskadi (31,92%), del Territorio Histórico de Bizkaia (3,94%) y de Organismos

nazioarteko erakundeenak (% 11,39).

Estatutik jasotako transferentzien artean, estatuko horniduren 43,98 milioi azpimarra daitezke, autonomia eta mendekotasunaren arreta sistema finantzatzeko (37,87 aurreko ekitaldian), EAEtik "gaitasun berriak-I+G+b finantzaketa" nabarmen daiteke, 15,69 milioi euro jaso baitira. Bizkaiko lurralde historikokoetan 2018. urtean, lehenengoz zortzi urtetan, udalerrietatik transferentziarik ez da jaso (2017. urtean 61,81 milioi euro jaso ziren) eta Aldundiak ordaindu behar izan dizkie aparteko 12,15 milioi euro, 2017. urtean kontura emandako zenbatekoaren gainean.

V. kapituluan ondare-sarrerak biltzen dira, eta Aldundiaren jabetza edo ondasunen errentetatik datoz sarrera horiek. Kapitulu hori % 158,57 handitu da, eta sarrera ez finantzarioen zenbateko osotik % 0,02 baino ez du hartzen.

VI. kapituluan (inbertsio errealak besterentzea), sarrerek 2018ko ekitaldian 945,77 mila euroko gorakada izan dute, hau da, % 213,03koa. Hala ere, emaitza horiek ez dira esanguratsuak, inbertsioen besterentzeak normalean oso sarrera txikiak ekartzen dituelako Foru Aurrekontuaren aldean, eta sarrera horiek berez ausazko izaera dutelako.

VII. kapituluan (kapital transferentziak) Aldundiak kapital-eragiketak finantzatzeko jasotzen dituen baliabideak biltzen dira, baliabide baldintzatuak izan edo ez. Kapitulu hori % 17 handitu da, aurreko ekitaldiaren aldean, hau da, 890,78 mila euro gehiago. Kapitulu horretako sarreren iturriak sei dira: Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa, nazioarteko erakundeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen transferentziak, familiak eta enpresak.

2018an VII. kapituluko osagai nagusia "nazioarteko erakundeen transferentziei" dagokiena da; izan ere, 2018an kapitulu horren % 88 baino gehiago osatzen du, eta gehienbat EGEFetik dator (% 48,66).

VIII. eta IX. kapituluetan biltzen diren finantza-sarrerei dagokienez, batera hartuta pisu espezifiko txikia dute aurrekontuan. Haien zenbatekoa 155,12 milioi euro izan da, guztira.

VIII. kapituluko (Finantza aktiboen aldakuntza –positiboa–) sarrerak, berriz, Aldundiak udalei, langileei eta familiei emandako epe laburreko maileguen eta aurrerakinen itzulketetatik datoz. 2018ko ekitaldi honetan zenbatekoa 0,93 milioi eurokoa da, eta 2017ko ekitaldiarekin alderatuta, % 58,40ko jaitsiera egon da.

Sarreren ataleko IX. kapituluak (Finantza-pasiboen aldakuntza –positiboa–) ekitaldian hartutako epe

Internacionales (11,39%).

De las transferencias recibidas del Estado destacan los 43,98 millones de Dotaciones del Estado para la financiación del Sistema de Autonomía y Atención a la Dependencia (37,87 en el ejercicio anterior), de la C.A. de Euskadi cabe destacar las "Nuevas competencias-Financiación I+D+I" por importe de 15,69 millones de euros, y en las del TH Bizkaia cabe destacar que en 2018, por primera vez en ocho años, no se ha recibido transferencia procedente de los municipios (en 2017 se recibieron 61,81 millones de euros) y ha sido la Diputación quien ha tenido que abonarles 12,15 millones de euros extra sobre la cantidad entregada a cuenta durante 2017.

El Capítulo V, Ingresos Patrimoniales, que proceden de rentas de la propiedad o patrimonio de la Diputación, muestra un ascenso del 158,57 % aunque sólo representan el 0,02% del total ingresos no financieros.

Los ingresos por Capítulo VI, Enajenación de Inversiones Reales, ha experimentado en el ejercicio 2018 un incremento de 945,77 miles de euros, lo que supone un 213,03 % más. Sin embargo, no tienen carácter significativo, ya que la enajenación de inversiones habitualmente arroja unos ingresos con importes mínimos en relación al Presupuesto Foral y por su propia naturaleza tienen un carácter aleatorio.

El Capítulo VII, Transferencias de Capital, que engloba los recursos condicionados o no, que recibe la Diputación para la financiación de operaciones de capital, refleja en relación al ejercicio anterior un ascenso del 17%, lo que ha supuesto 890,78 miles de euros más. Los ingresos de este capítulo tienen seis tipos de origen: Comunidad Autónoma de Euskadi, Territorio Histórico de Bizkaia, Organismos Internacionales y Transferencias de instituciones sin fines lucrativos, Familias y Empresas.

En 2018, el componente principal del capítulo VII, es el correspondiente a "Transferencias de Organismos Internacionales" con un importe de 5,40 millones, aportando en 2018 más del 88% de este capítulo y procediendo en su mayor parte del FEDER (el 48,66%).

En lo que concierne a los ingresos financieros que se recogen en los Capítulos VIII y IX, conjuntamente tienen poco peso específico en el presupuesto y su importe agregado es de 155,12 millones de euros.

Los ingresos del Capítulo VIII, Variación (positiva) de Activos Financieros, provienen de reintegros de préstamos a corto plazo y anticipos que la Diputación concede a Ayuntamientos, personal y familias. Su importe en este ejercicio 2018 es de 0,93 millones de euros, con un descenso en la recaudación respecto al ejercicio 2017 del 58,40%.

El Capítulo IX de Ingresos, Variación (positiva) de Pasivos Financieros, recoge los préstamos a largo plazo

luzerako maileguak jasotzen ditu. 2018. urtean, 154,19 milioiko beste zorduntze bat egin da hainbat finantza-erakunderekin. 2017. urtearekin erkatuta, aitortutako eskubideek 7,9 milioi egin dute gora, 146,29 milioitik 154,19 milioira.

Zorpetze garbiaren bilakaera ezagutu ahal izateko, batera aztertu behar dira kapitulu hori eta gastuen ataleko IX. kapitulua (Finantza-pasiboen aldakuntza –negatiboa–), epe luzeko maileguen amortizazioak biltzen dituena. 2018. urtean 154,19 milioi izan dira.

Sarrerei buruzko IX. kapitulua 154,19 milioi eurora handitu denez, zorpetzearen 2018ko aldakuntza garbia 0 eurokoa da; gauzak horrela, aurrekontuko zor publikoaren saldoa 1.207,46 milioi eurokoa zen 2018ko abenduaren 31n, egonkor egonda.

tomados en el ejercicio. En el año 2018 se ha procedido a efectuar un nuevo endeudamiento con una serie de Entidades Financieras por 154,19 millones. Comparado con 2017 los derechos reconocidos aumenta en 7,9 millones, pasando de 146,29 millones a 154,19 millones.

Este capítulo debe analizarse paralelamente con el Capítulo IX de Gastos, Variación (negativa) de Pasivos Financieros, que recoge las amortizaciones de préstamos a largo plazo, y ello, a efectos de conocer la evolución del endeudamiento neto. El importe de las mismas ha sido de154,19 millones en 2018.

Dado que el Capítulo IX de ingresos ha ascendido a 154,19 millones de euros, la variación neta del endeudamiento en 2018 asciende a 0 euros, dejando el saldo de Deuda Pública Presupuestaria a 31/12/2018 en 1.207,46 millones de euros, manteniéndose constante.

Bizkaiko Foru Aldundiak erabilgarri dituen zerga itunduak

Bizkaiko Foru Aldundiak 2018an eskuragarri eduki dituen baliabideak 1.311.456 milioi euro izan dira; kopuru hori zerga itunduengatiko sarrera garbien ia % 17 da. Eskuragarri dauden baliabideen zenbateko hori Foru Aldundiaren kudeaketarako erabiltzen da eta 2017ko ekitaldiari dagokionez, oro har 163,5 milioiko igoera izan dute, hots, % 14,24 gehiago. Erabilgarri dauden zergen eta zerga itunduen arteko loturan % 1,64ko igoera egon da.

Eskuragarri dauden baliabideak 2018ko ekitaldian pixka bat igo dira; horren arrazoia ez da hainbeste zerga itunduen bidezko diru-bilketa likidoaren hazkundea (% 3,19), erakundeen konpromisoengatiko gastuen hazkunde txikia baino (% 1,2), horrek eragin baitu diru-bilketa osoaren gaineko bere proportzioaren murrizketa, 1,64 puntu portzentualekoa dena, % 83,1ean kokatu arte.

Tributos Concertados disponibles de la Diputación Foral de Bizkaia

Los recursos disponibles de la Diputación Foral de Bizkaia en 2018 se elevan a 1.311.456 millones y representan casi el 17% de los ingresos netos por tributos concertados. Este importe de recursos disponibles que se destina a la gestión propia de la Diputación Foral supone, en relación al ejercicio 2017, un incremento de los mismos en términos absolutos de 163,5 millones, lo que significa un aumento porcentual del 14,24%, y 1,64 puntos porcentuales más en la relación tributos disponibles/tributos concertados.

Este incremento de recursos disponibles en el ejercicio 2018 se deriva no tanto del aumento en la recaudación líquida por tributos concertados (3,19%) como del pequeño incremento (1,2%) de los gastos por compromisos institucionales lo que provoca una reducción de su proporción sobre el total de la recaudación, que se cuantifica en 1,64 puntos porcentuales hasta situarse en el 83,1%.

21. taula / Cuadro nº 21
Bizkaiko Foru Aldundiak erabilgarri dituen zerga itunduak
Tributos Concertados disponibles de la Diputación Foral de Bizkaia

Kontzeptua Concepto	2018		2017		% Aldakuntza Variación 2018/2017
	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	
Tributu itunduen zergabilketa Recaudación Tributos concertados	7.740.095	100	7.500.483	100	3,19
Erakundearteko konpromisoak Compromisos institucionales	6.428.639	83,1	6.352.538	84,7	1,20
Ordaindutako kupoa Cupo pagado	479.014	6,2	517.146	6,9	-7,37
Ekarpenak / Aportaciones	5.051.253	65,3	4.990.784	66,5	1,21
Udal finantzaketa/ Financiación municipal	889.472	11,5	836.107	11,1	6,38
Juntas Generales Batzar Nagusiak	8.900	0,1	8.500	0,1	4,71
BFA erabilgarri dituen zerga Disponible T. Concertados DFB	1.311.456	16,9	1.147.945	15,3	14,24

Milaka eurotan /Miles de euros

Aurreko taulan zerga itunduen bilketa garbiaren guztizkotik BFAk eskuragarri duen zenbatekoaren kalkulua ageri da, behin erakundeen konpromisoetatik eratorritako ordainketak kenduta.

EJri eta Doikuntza Funts Orokorrari egindako ekarpenek, guztira, 5.051,25 milioi euroko zenbateko garbia ekarri dute, kapitulu honetako Kupoaren eta Ekarpenen atalean ezartzen den bezala. Adierazitako

En el cuadro anterior figura el cálculo del importe disponible por la DFB del total de la recaudación neta por tributos concertados una vez detraídos los pagos por Compromisos Institucionales.

Las Aportaciones al GV y el Fondo General de Ajuste han alcanzado un importe conjunto neto de 5.051,25 millones tal como consta en el apartado Cupo y Aportaciones de este Capítulo. La cifra indicada, por

kopuruak, hortaz, 2018ko ekarpenen likidaziotik eratorritako doikuntza barne hartzen du, EJk BFAri egindako 15,7 milioi euroko sarrerena. Gainera, beste ordainketa eta kobrantza batzuk sartzen dira bi erakundeen artean, –10,5 milioikoak.

tanto incluye el ajuste derivado de la liquidación de las Aportaciones del propio año 2018 por importe de 15,7 millones de euros de ingresos a la DFB por parte del GV. Además, se incluyen otros pagos y cobros entre ambas instituciones por importe de -10, 5 millones,

Esandako guztiagatik, BFAk 2018an zehar EJri egindako ekarpen gordinak 5.077,418 milioi eurokoak izan ziren, eta ondorio horietarako, bere zenbateko garbian konputatzen dira, 5.051,253 milioi eurokoa izan dena. Irizpide hori jarraitu da aurreko urteetan ere.

Por todo lo dicho, las aportaciones brutas del año 2018 al GV por parte de la DFB de 5.077,418 millones, a estos efectos se computan en su importe neto que ha sido 5.051,253 millones de euros. Este criterio se ha seguido también en años anteriores.

Hori dela eta, 2017ko ekitaldiari dagokionez, EJri eta Doikuntza Funts Orokorrari egindako ekarpenak 60,5 milioi eurotan hazi dira, % 1,21, beste urte batzuetako % 12ko tasen aurrean. Hazkunde nagusia "ekarpen orokorrak" azpikontzeptuan ematen dira; bestalde, gogor egin dute behera "osasun gastu estraren finantzaketa" eta "Hezkuntzako Lege Organikoaren garapena" azpikontzeptuek.

Por ello, con respecto al ejercicio 2017, las Aportaciones al GV y el Fondo General de Ajuste han aumentado en tan solo 60,5 millones, el 1,21% frente a tasas del 12% en otros años. El principal aumento se produce en el subconcepto de "Aportaciones generales" mientras que descienden drasticamente los subconceptos de "Financiación del gasto sanitario extra" y el subconcepto "Desarrollo de la Ley Organica de Educación"

Aurrekoaren ondorioz, 2018an EJri egindako ekarpenek arinki murriztu dute beren parte-hartzea eta zerga itunduen bidez egindako diru-bilketaren % 65,3 eta erakunde-konpromisoen guztizkoaren % 78,57 dira.

Como consecuencia de lo anterior, las Aportaciones al GV realizadas en 2018 reducen levemente su participación y suponen el 65,3% de la recaudación por tributos concertados y constituyen el 78,57% del total de Compromisos Institucionales.

Gastuen aurrekontuan jasotzen den bezala, erakunde-konpromisoen ondoriozko gastuen barruan, udal finantzazioaren ondoriozko gastuak 2018an 889,47 milioi eurokoak izan ziren. Udalerrientzako transferentzien bidezko gastu arrunta eta Udalkutxaren zuzkidurak gehituta atera da zenbateko hori.

Según se recoge en el Presupuesto de Gastos, dentro de los gastos por Compromisos Institucionales, los gastos por la financiación municipal asciende en 2018 a 889,47 millones de euro. Este importe se obtiene agregando el gasto corriente por transferencias a los municipios más las dotaciones a Udalkutxa .

Ekitaldian % 6,4ko hazkundea izan du (53,4 milioi gehiago), "zerga itunduen parte-hartzea" azpikontzeptuan eman den hazkundearen ondorioz (74.042 mila euro gehiago, % 9,3ko hazkundea), "Gizartekutxa" eta "Udal parte-hartzea banku finantzaketako zerga itunduetan" bezalako beste azpikontzeptu batzuen beherakadaren ondorioz.

Ha experimentado un incremento en el ejercico del 6,4% (53,4 millones más) debido al aumento en el subconcepto "Participación en tributos concertados" (74.042 miles de euros más , incremento del 9,3%) compensado por el descenso en otros subconceotos como "Gizartekutxa" y "Participación municipal en tributos concertados financiación bancaria".

2017an bezala, 2018an, Bizkaiko udalen aldeko likidazio positibo bat eman da. Zenbateko hori, 50 milioi euro baino zerbait handiagoa, 2018ko gastuen aurrekontuan sartuta dago, baina 2019an ordainduko da.

Al igual que en 2017, en 2018 se genera una liquidación positiva a favor de los Ayuntamientos de Bizkaia. Este importe, ligeramente superior a 50 millones de euros, figura incluido en el Presupuesto de Gastos de 2018 pero será abonado en 2019.

Udal finantzaketaren gastua, zerga itunduengatik bildutakoaren % 11,5 izan da, eta erakundeen konpromisoengatik guztira ordaindutakoaren % 13,84.

El gasto de la financiación municipal ha supuesto el 11,5% de la recaudación por tributos concertados y el 13,84% del total pagado por Compromisos Institucionales.

2018ko Kupoaren gastu garbia 479.014 mila eurokoa da.

El gasto neto correspondiente al Cupo 2018 es de 479.014 miles de euros.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 7,37ko beherakada izan da. Kupoa 2018ko ekitaldiko itundutako zergen bilketaren % 6,2 da, eta erakundeen konpromiso guztien % 7,45.

Supone un descenso respecto al ejercicio anterior del 7,37%. El Cupo representa un 6,2% del total de recaudación por tributos concertados del ejercicio 2018 y el 7,45% del total de los Compromisos Institucionales

Beherakada hori, aurreko urtearekin alderatuta, 2017-2021 bosturtekorako Euskadiko Kupoa zehazteko metodologia onartzen duen abenduaren 28ko 11/2017 Lege berria indarrean sartu zelako gertatu zen. Hala, Kupoak 2017ko ekitaldian izan duen hazkundea 2018an konpentsatu da, eta hurrengo ekitaldiak, Estatuak EAEri egindako finantza-fluxuengatik.

Este descenso respecto al año anterior, se debe a la entrada en vigor de la nueva Ley 11/2017, de 28 de diciembre, de metodología de señalamiento del cupo del País Vasco para el quinquenio 2017-2021 . Así, el incremento del Cupo en el ejecicio 2017 se ve compensado en 2018, y ejercicios posteriores, por flujos financieros del Estado a la CAPV.

Batzar Nagusientzako transferentziek ez dute edukitzen bilakaera erregularrik, unean-unean planteatzen diren beharrizanei lotuta egoten dira eta. Ekitaldiko zenbatekoa 8,9 milioi euro izan da, hots, aurreko ekitaldian baino % 4,71 gehiago.

Las transferencias a Juntas Generales no siguen una evolución regular estando sujetas a las necesidades puntuales que se puedan plantear. Su importe en el ejercicio ha sido de 8,9 millones de euros, aumentando en un 4,71% respecto el año anterior.

Laburbilduta, 2018an erakunde-konpromisoen zenbatekoa 6.428.639 milioi euro izan da, zerga itunduen bidez bildutakoaren % 83,1; hau da, 2017an baino ehuneko 1,64 puntu txikiagoa.

En definitiva, en 2018 los Compromisos Institucionales alcanzan la cifra de 6.428.639 millones de euros y representan el 83,1% de los ingresos por tributos concertados, 1,64 puntos porcentuales menos que en 2017.

Zenbatekoa, 2018an, % 1,2 hazi zen; zerga itunduen bidezko diru-bilketan, berriz, hazkunde-tasa % 3,2koa izan zen.

Su importe, en 2018, supone un crecimiento del 1,2% frente a una tasa de crecimiento del 3,2% en la Recaudación de tributos concertados.

Bi kontzeptuen hazkunde horren desberdintasunaren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak zerga itunduen zenbateko handiagoa du erabilgarri.

Esta diferencia de crecimiento en ambos conceptos, implica un mayor importe disponible de tributos concertados para la Diputación Foral de Bizkaia.

Hala, 2018an, BFAn gastuei aurre egiteko sarreren zenbateko erabilgarria 1.311,46 milioi eurokoa izan da, % 14,24ko hazkundearekin, 2017arekin alderatuta; hau da, 163,5 milioi gehiago.

Así, en 2018 el importe disponible de ingresos para afrontar los gastos en la DFB ha sido de 1.311,46 millones de euros con un crecimiento del 14,24% respecto a 2017, es decir 163,5 millones más.

III.1.2 Kudeaketa propioko gastuen eta sarreren egitura
Estructura de los ingresos y gastos de gestión propia

Aurrekontu propioaren egituran, kudeaketa propioko gastuak eta sarrera propioak bereizten dira, eta biak daude salbuetsita kapital-eragiketetatik (VIII. eta IX. kapituluak). Halaber, sarrera propioetan nahiz kudeaketa propioko gastuetan, kontzeptu bakoitzak guztizko zenbatekoarekiko duen pisu espezifikoa ageri da.

Sarrera propioetan, I, II eta III. kapituluetan (Zerga Zuzenak, Zeharkako Zergak eta Tasak eta Beste sarrera batzuk), zerga itunduak eta gainerako zerga-sarrerak bereizita taldekatu dira. Lehen taldetik kendu dira erakundeen konpromisoak eta, hala, Foru Aldundiak kudeaketa propiorako dituen zerga itundu erabilgarrien zenbatekoa lortzen da.

Sarrera propioak, guztira, 2018an, 1.582,74 milioi eurokoak izan dira eta 159,23 milioiko aldakuntza positiboa izan du, hau da, % 11,19ko hazkundea.

La estructura del presupuesto propio distingue entre ingresos propios y gastos de gestión propia, excluyendo de ambos las operaciones de capital (Capítulos VIII y IX). Asimismo, tanto dentro de los ingresos propios como dentro de los gastos de gestión propia se recoge el peso específico de cada uno de los conceptos que lo integran respecto del total.

En los ingresos propios, los Capítulos I, II y III (Impuestos Directos, Impuestos Indirectos y Tasas-Otros Ingresos) se han agrupado diferenciándose entre los tributos concertados y el resto de ingresos tributarios y, restando del primer grupo el importe de los compromisos institucionales, se obtiene la cuantía por tributos concertados disponibles por la Diputación Foral para su gestión propia.

El total de los ingresos propios en 2018, en términos absolutos alcanza la cifra de 1.582,74 millones, y una variación positiva de 159,23 millones que representa un incremento del 11,19%.

22. taula / Cuadro nº22
Aurrekontu propioaren egitura
Estructura del presupuesto propio

Kontzeptua Concepto	Zenbatekoa Importe			Egitura Estructura (%)			% Aldakuntza Variación	
	2018	2017	2016	2018	2017	2016	2018/2017	2017/2016
Sarrera propioak (A) Ingresos propios (A)	1.582.741	1.423.511	1.539.369	100	100	100	11,19	-7,53
BFAk erabilgarri dituen Zerga itunduak Tributos concert. Disponibles DFB	1.311.456	1.147.945	1.074.780	82,86	80,64	69,82	14,24	6,81
Itundu gabeko bestelako zergak Otros tributos no concertados	178.260	35.677	282.899	11,26	2,51	18,38	399,66	-87,39
Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	83.964	233.885	171.649	5,30	16,43	11,15	-64,10	36,26
Ondare sarrerak Ingresos patrimoniales	1.559	524	1.144	0,10	0,04	0,07	197,52	-54,20
Inbertsioak errealak besterentzea Enajenación Inversiones Reales	1.390	445	487	0,09	0,03	0,03	212,36	-8,62
Kapital Transferentziak Transferencias de Capital	6.112	5.035	8.410	0,39	0,35	0,55	21,39	-40,13
Kudeaketa propioko gastuak (B) Gastos de gestión propia (B)	1.306.825	1.265.994	1.223.356	100	100	100	3,23	3,49
Langileria gastuak Remuneración de Personal	201.061	194.001	187.932	15,39	15,32	15,36	3,64	3,23
Ondasun arrunten eta zerb. Erosketak Compras Bienes corrientes y servic.	400.345	428.414	405.347	30,63	33,84	33,13	-6,55	5,69
Gastu Finantzarioak Gastos financieros	25.496	27.381	29.744	1,95	2,16	2,43	-6,88	-7,94
Ondasun arruntak Transferencias corrientes (gestión propia)	496.844	455.873	439.005	38,02	36,01	35,89	8,99	3,84
Inbertsio errealak Inversiones reales	108.862	60.471	62.116	8,33	4,78	5,08	80,02	-2,65
Kapital Transferentziak Transferencias de Capital	74.217	99.854	99.212	5,68	7,89	8,11	-25,67	0,65
Finantzaketaren beharra/gaitasuna (A-B) Necesidad/capacidad Financiac. (A-B)	275.916	157.517	316.013				75,17	-50,15
Finantza-aktiboen aldaketa positiboa Variación Positiva de Act. Financieros	934	2.246	6.397				-58,41	-64,89
Finantza-aktiboen aldaketa negatiboa Variac.Negativa de Act. Financieros	105.869	104.647	102.115				1,17	2,48
Zorpetze garbiko behar edo gaitasuna Necesidad ó Capacidad Endeud. Neto	170.981	55.116	220.295				210,22	-74,98
Finantza-pasiboen aldaketa positiboa Variación positiva Pasi. Financieros	154.186	146.288	148.488				5,40	-1,48
Finantza-pasiboen aldaketa negatiboa Variación negativa Pasi. Financieros	154.186	146.288	148.488				5,40	-1,48
Aurrekontu superabita/deficita doitu gabe Superavit/Déficit presupuestario sin ajustar	170.980	55.117	220.295				210,21	-74,98

Miles de euros

Taulan ikusten den bezala, erabilgarri dauden zerga itunduei dagozkien sarrera propioek dute garrantzirik handiena, % 82,86 baitira. 2017 ekitaldiarekin alderatuta, aldakuntza txiki batekin. Balio absolututan, 2018an erabilgarri zeuden zerga itunduak 1.311,46 milioi eurokoak izan ziren.

Como se observa en el cuadro, el mayor peso específico de los ingresos propios corresponde a los tributos concertados disponibles, que representa el 82,86% de los mismos, con una pequeña variación respecto a 2017. En términos absolutos los Tributos concertados disponibles en 2018 se cifran en 1.311,46 millones de euros.

Garrantziari dagokionez, haren atzetik datoz itundu gabeko beste zerga batzuengatiko sarrerak, % 11,26kin eta 178,26 milioirekin, jasotako transferentzia arrunten kaltetan, beren parte-hartzea % 5,30era arte murriztu dutenak, aurreko urteetako % 16ko partaidetza-tasekin alderatuta.

Le siguen en importancia los ingresos por Otros tributos no concertadoscon un 11,26% y un importe de 178,26 millones, en detrimento de las Transferencias corrientes recibidas que disminuyen su participación hasta el 5,30% frente a tasas de participación del 16% en años anteriores.

Zehazki, Transferentzia arrunten IV. Kapituluaren

En particular, dentro del Capítulo IV de Transferencias

baitan, urte arteko bilakaera negatiboa nabarmentzen da, guztira, 150 milioiko beherakadarekin, % 64,1; horien zenbatekoa 2018rako 84 milioi eurokoa izan zen bakarrik.

Jasotako transferentzia arrunten osagaien bilakaera honako hau da:

- Estatuarekin egiten diren transferentziak dira atal horretako zenbatekoan beherakada hain handia eragiten dutenak. Horren zenbatekoa 2017ko 153,49 milioi eurotik 2018ko 36,86 milioi eurora igaro da, 2018an ez zegoelako kupoaren ezohiko erregulaziorik eta 2017an bai (46,92 milioi), eta jaitsierak izan direlako estatuak Autonomia eta Mendekotasunerako Laguntza Sistemarako emandako zuzkiduretan: 2017ko 103,09 milioitik 2018ko 33,11 milioira igaro dira.

- BLHaren transferentziek urte arteko bilakaera positiboa izan du, 2017ko 2,90 miliotik 2018ko 3,89 milioira igaro da.

- EAEko transferentziek, era berean, urte arteko bilakaera negatiboa izan dute, 2017ko 62,52 milioitik 2018ko 28,47 milioira igaro dena, ekitaldi horretan, ez direlako egon 2017ko Finantzen Euskal Kontseiluan adosturiko BFArentzako konpentsazioaren 46,4 milioiak. Hori, Estatuarekin egin ohi diren kupo-akordioetatik eratorritako ezohiko sarrera bat izan ohi da. Zentzu positiboan, ekarpen orokorren likidazioaren ziozko transferentziak aipatu behar dira; 2018an 15,69 milioikoak izan baitziren eta 2017an zerokoak.

- Nazioarteko erakundeetako transferentziek bilakaera positiboa izan dute, 10,96 miliotik 11,14 milioira igaroz 2018an; nagusiki, EGFren transferentzien azpikontzeptuan eman zen gorakadarengatik; hala ere, atal honetako % 96 osatzen duen azpikontzeptua FEAGAren transferentziak dira, 10,69 milioiko zenbatekoarengatik.

V. kapitulua Ondare-sarrerak sarrera propioen % 0,10 besterik ez dira baina 2018an gorakada nabarmena izan dute, % 200 ingurukoa, 524 mila eurotik 1,56 milioi eurora igaro baita. Sarreretako igoera hori "Parte hartutako beste enpresa batzuen dibidenduak" azpikontzeptuarengatik gertatu da, milioi 1 eurokoa.

Ezaugarri berberak ematen dira Inbertsioen Besterentzean (VI. Kapitulua), izan ere, sarrera propioen 0,09 bakarrik baita; baina, era berean, 2018an, % 200etik gorako hazkundea izan du bere zenbatekoan. Bere zenbatekoa 2017ko 445 mila eurotik 2018ko 1,4 milioira igaro da. Kontuan izan

Corrientes, destaca la evolución interanual negativa con un descenso total de 150 millones, el 64,1% y con un importe de las mismas para 2018 de tan solo 84 millones.

La evolución de los componentes de las transferencias corrientes recibidas es la siguiente:

- Son las Transferencias con el Estado las que provocan el fuerte descenso en el importe de este apartado. Su importe pasa de 153,49 millones en 2017 a 36,86 en 2018 debido a que no ha existido la regularización extraordinaria del Cupo que si existió en 2017 (46,92 millones) y a las Dotaciones del Estado para el SAAD que pasan de 103,09 millones en 2017 a 33,11 millones en 2018.

- Las Transferencias del THB, obtienen una evolución interanual positiva, pasando de 2,90 millones en 2017 a 3,89 millones en 2018.

- Las Transferencias de la CAPV, también presentan una evolución interanual negativa al pasar de 62,52 millones en 2017 a 28,47 millones en 2018 por la no existencia, en este ejercicio, de los 46,4 millones de la compensación a DFB acordada en Consejo Vasco Finanzas en 2017. Este suele ser un ingreso extraordinario derivado de los acuerdos de Cupo con el Estado. En sentido positivo mencionar las Transferencias por liquidación de las aportaciones generales que en 2018 han sido de 15,69 millones en 2018 y cero en 2017.

- Las Transferencias de Organismos Internacionales obtienen una evolución positiva, pasando de 10,96 millones a 11,14 millones en 2018 debido, principalmente, al aumento en el subconcepto Transferencias del FSE, aunque el subconcepto que constituye el 96% de este apartado es transferencias del FEAGA por un importe de 10,69 millones.

El Capítulo V. Ingresos Patrimoniales, solo representan el 0,10% de los ingresos propios pero en 2018 han sufrido un importante incremento cercano al 200% al pasar de 524 mil euros a 1,56 millones. Este aumento en los ingresos se genera por el subconcepto "Dividendos de otras empresas participadas" por importe de 1 millón de euros.

Iguales características se dan en la Enajenación de Inversiones (Capítulo VI) ya que solo representa el 0,09 de los ingresos propios pero también, en 2018, ha tenido un incremento en su importe de más del 200%. Su importe ha pasado de 445 mil euros en 2017 a 1,4 millones en 2018 . Hay que tener en cuenta que, por su

behar da, bere izaera dela eta, kontzeptu horren ziozko sarrera oso alderraia dela. Ekitaldi honetan, horien hazkundea "Lursailen besterentzearen" azpikontzeptuarengatik eman da.

propia naturaleza el ingreso por este concepto es muy errático. En este ejercicio el aumento de los mismos viene dado por el subconcepto de la "Enajenación de terrenos".

Azkenik, kapital-transferentzien ziozko sarrerak, % 0,39ko parte-hartzearekin, 2017ko ekitaldiarekin alderatuta, % 21,39 hazi direla, 6,11 milioitan kokatuz; aurreko ekitaldian, berriz, 5,03 milioikoa izan zen. Igoera hori, nagusiki, Nazioarteko Erakundeen Transferentzietatik dator (1,54 milioi gehiago), eta horiek guztiak Europar Batasunetik datoz.

Por último, los Ingresos por las Transferencias de Capital, con una participación del 0,39%, aumentan respecto al ejercicio 2017, un 21,39% situandose en 6,11 millones frente a los 5,03 millones del ejercicio anterior. Este aumento se deriva principalmente las Transferencias de Organismos Internacionales (1,54 millones más) y provienen, en su totalidad, de la Unión Europea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren gastu osoari dagokionez, 2018an, 8.021,69 milioi euro da, eta % 80,14 (6.428,64 milioi euro) erakundeen konpromisoei dagokie, % 16,29 (1.306,82 milioi) kudeaketa propioko gastuei eta gainerako % 3,57a kapital gastuei. Datu horiek zenbateko garbiei dagozkie; izan ere, kontzeptu bakoitzari sartu beharreko likidazioak kendu dizkiogu, ekitaldiko sarreren aurrekontuari dagozkionak.

En lo que respecta al gasto total de la Diputación Foral que en 2018 se eleva a 8.021,69 millones de euros, indicar que el 80,14% (6.428,64 millones) corresponde a los compromisos institucionales, el 16,29% (1.306,82 millones) a los gastos de gestión propia y el 3,57% restante a los gastos de capital. Estos datos corresponden a cantidades netas, ya que hemos detraído a cada concepto las liquidaciones a ingresar que corresponden al presupuesto de ingresos del ejercicio.

Kudeaketa propioko gastuen egitura aztertzen badugu (analisi horren ondorioetarako aurrekontuetako VIII. eta IX. kapituluak salbuetsi ondoren), pisu espezifikoari dagokionez, 2016an, 2017an eta 2018an antzekoak izan dira. Izan ere, lehenengo tokian kudeaketa propioko transferentzia arruntak egon dira, bigarrenean ondasunen nahiz zerbitzuen erosketak eta hirugarrenean langileen ordainsariak. Kudeaketa propioko gastuen guztirakoan partaidetza hauek izan dira: % 38,02, % 30,63 eta % 15,39. Gero, inbertsio errealak eta kapital-transferentziak daude, % 8,33ko eta % 5,68ko partaidetzarekin, hurrenez hurren. Azkenik, finantza gastuak kudeaketa propioko gastuen % 1,95 izan dira.

El análisis de la estructura de los gastos de gestión propia (una vez excluidos a los efectos de este análisis los capítulos presupuestarios VIII y IX) nos muestra, en cuanto a su peso específico, que tanto en 2016, 2017 como en 2018 son muy parecidas ya que el primer y segundo lugar lo ocupan las transferencias corrientes de gestión propia, y las compras de bienes y servicios, siendo la remuneración de personal la que ocupa el tercer lugar. Su participación en el total de los gastos de gestión propia ha sido del 38,02%, 30,63% y 15,39%, seguidos por las inversiones reales, y las transferencias de capital que representan el 8,33% y el 5,68% respectivamente. Por último, los gastos financieros sólo representan el 1,95% de los gastos de gestión propia.

2017arekin alderatuz, izan duen eboluzioak kontzeptuen zenbatekoa antzera mantendu dela erakusten du, kapital-transferentziak eta inbertsio errealak izan ezik. Batzuek behera egin dute (–% 25,7) eta beste batzuek gora egin dute (–% 80), hurrenez hurren.

- Respecto al tipo general, al tipo del 5,2%, la base disminuye un 3,43%, pasando de 94,86 en 2017 a 91,61 millones en 2018.
- La base imponible del recargo del 1,4% también disminuye en 2018 en 4,62 millones respecto a 2017, lo que supone una disminución del 2,84%.
- Por su parte, la base al 1,75% (sólo aplicable al tabaco) disminuye un 0,88%.
- La base imponible del recargo del 0,5 %, es la única que experimenta un aumento, de tan solo un 0,20%.

2017an % 0,5, % 4 eta % 5,2ko zerga-oinarrien ehunekoak tasa super-murriztuaren, tas murriztuaren eta tasa orokorraren oinarrietan gutxi aldatu dira

Las bases imponibles de los tipos de recargo al 0,5 por 100, 4 por 100, y 5,2 por 100 en 2017, varían mínimamente su representatividad respecto a sus correspondientes bases imponibles de los tipos superreducido, reducido y del general.

2018ko BEZaren tasa guztiei dagozkien zerga-oinarrien zenbatekoari buruz aritzean azaldu dugun bezala, kontsumoaren igoerak berekin ekarri du gora egitea bai oinarriek bai oinarri horien ondorioz sortutako kuotek.

Tal como hemos venido diciendo a la hora de comentar las cuantías de las bases imponibles a los diferentes tipos en IVA 2018, el aumento en el consumo implica un aumento tanto en las bases como en las cuotas devengadas por dichas bases.

2018ko ekitaldian tasa guztiek sortutako kuota 9.102,97 milioikoa izan da, eta 2017ko BEZean 8.471,50 milioi eurokoa izan zen; hortaz, % 7,45eko aldakuntza positiboa izan da.

La cuota devengada por los diversos tipos correspondiente al ejercicio 2018 se elevó a 9.102,97 millones frente a 8.471,50 millones de euros en IVA 2017, lo que supone una variación positiva del 7,45%.

2017. ekitaldiko batez besteko zerga-tasa (tasa desberdinetako kuotak eta oinarriak baino ez) % 18,66 izan da, hau da, 2017koa baino 6 ehunen gehiago.

Por lo que respecta al tipo medio de gravamen (sólo cuotas y bases por tipos diferentes) para el ejercicio 2017 se ha situado en el 18,66% con un incremento de 6 centésimas al obtenido en 2017.

Batasunaren barruko eskuraketek sortutako kuoten guztizko zenbatekoa 835,82 milioi euro izan da (2017an baino 31,71 milioi gehiago); batez besteko tasa % 18,65 izan da, ia ehuneko 0,04 puntu gehiago.

La cuota devengada por adquisiciones intracomunitarias se cifra en 835,82 millones de euros, (31,71 millones más que en 2017) y obteniéndose un tipo medio del 18,65%, 0,04 puntos porcentuales mayor.

2018an subjektu pasiboaren inbertsioagatiko oinarrietatik datorren kuota (zerga-tasa desberdinetan sortutako oinarrietatik bereizita aitortu behar da) 942,24 milioi eurokoa izan da. Oinarria 4.625,01 milioikoa izan denez, batez besteko zerga-tasa % 20,37koa izan da.

La cuota proveniente de bases por inversión del sujeto pasivo, que debe ser declarada independientemente de las bases devengadas a los distintos tipos de gravamen, en 2018 alcanza la cifra de 942,24 millones que sobre una base de 4.625,01 millones se obtiene un tipo medio de gravamen del 20,37%.

2018ko BEZeko zerga-oinarriaren eta sortutako kuotaren (baliokidetasun araubidearen aurretik) arteko erlazioaren bitartez batez besteko karga-tasa lor dezakegu, eta 2017an % 18,80 izan da, 2017ko BEZarena baino ehuneko 0,08 puntu gehiago.

La relación de la base imponible y la cuota devengada de IVA 2018 antes del Régimen de Equivalencia nos permite obtener el tipo medio de gravamen que para 2017 es del 18,80%, superior al respectivo de IVA 2017 en 0,08 puntos porcentuales.

Baliokidetasun errekarguei dagokien zerga-oinarriak 11,74 milioiko kuota sortu du. Baliokidetasun errekarguari dagokion batez besteko karga-tasa 2018an pixka bat gutxitu da 2017ko batez besteko tasaren aldean, eta % 1,63 izan da.

La base imponible correspondiente a los Recargos de Equivalencia ha obtenido una cuota devengada de 11,74 millones. El tipo medio de gravamen correspondiente al Régimen de Recargo de Equivalencia en 2018 disminuye muy ligeramente respecto al tipo medio de 2017, y se sitúa en el 1,63%.

78. taula / Cuadro nº 78
Baliokidetasun-errekargua / Recargo de equivalencia

Errekargu-tasa Tipo recargo	Zerga oinarria / Base imponible					Portzentajea bidez. Inarriari dagokionez Porcentaje respecto a base correspondiente	
	2018		2017		Bariazio portzentajea Porcentaje de variación		
	Zenbatekoa Importe	Portzentaje erlatiboa Porcentaje relativo	Zenbatekoa Importe	Portzentaje erlatiboa Porcentaje relativo		2018	2017
100eko 0,5 / 0,5 por 100	280.076	38,79	279.524	38,24	0,20	14,79	15,56
100eko 1,4 / 1,4 por 100	157.807	21,86	162.427	22,22	-2,84	2,11	2,26
100eko 5,2 / 5,2 por 100	91.612	12,69	94.864	12,98	-3,43	0,23	0,26
100eko 1,75 / 1,75 por 100	192.467	26,66	194.177	26,56	-0,88		
Guztira Totales	721.962	100,00	730.993	100,00	-1,24		

Zenbatekoak milaka eurotan / Importes en miles de euros

Labur azalduta, zerga-oinarriaren guztizko zenbatekoa, baliokidetasun errekargua barne, % 7,13 hazi da, eta sortutako kuota ere hazi egin da baina portzentaje handiagoan, % 7,66 egin baitu gora (10.892,77 milioiraino); horren ondorioz apur bat igo da batez besteko karga-tasa, 0,1 ehunen, hain zuzen, % 18,59ra igo baita.

En resumen, se produce un aumento del total de la base imponible, incluyendo el Recargo de Equivalencia, del 7,13%, aumentando a su vez la cuota devengada en un porcentaje mayor, un 7,66% (hasta los 10.892,77 millones), lo que ha hecho aumentar ligeramente el tipo medio de gravamen en 0,1 puntos hasta un 18,59%.

V.4.5 Kenkariak eta BLHri egotz dakiokeen emaitza Deducciones y resultado atribuible al T.H.B

2018an araubide orokorrean aplikatutako kenkariek beheranzko joera izan dute, sortutako guztizko BEZak eta zerga-oinarriak bezala. Araubide orokorrean aplikatutako kenkarien zenbatekoa hazi egin da. Izan ere, jasandako kuoten edo kenkarien zenbatekoa 8.237,90 milioi euro izan da 2018an, aurreko ekitaldian baino 516 milioi euro gehiago; beraz, % 6,68ko igoera izan da.

Kenkari motak aztertuta, barruko operazioak dira garrantzitsuenak, ekitaldian kendutako guztiaren % 85,45 baitira, guztira 7.039,04 milioi euro. 2018an goranzko aldakuntza izan dute, urtean 462,26 milioi inguru, % 7,03ko tasa positiboarekin.

Garrantziaren arabera, ondoren kanpo-merkataritzarekin lotutako kenkariak eta Batasunaren barruko erosketengatiko kenkariak datoz. Kasu honetan, erkidego barruko erosketei lotutako eragiketak 826,51 milioi eurokoak izan dira, guztizko zenbatekoaren % 10,03, eta % 3,85 hazi dira (30,67 milioi euro gehiago).

Inportazioekin lotutakoak nabarmen hazi dira aurreko urtearekin alderatuta; hain zuzen ere, 366,96 milioi, 335,33 milioiren aldean, hots % 9,43ko igoera.

En 2018 las deducciones aplicadas en el régimen general han seguido la misma tendencia ascendente que ha sufrido el IVA devengado total y la base imponible. Las deducciones aplicadas en el régimen general han aumentado en su cuantía. Así estas cuotas soportadas o deducciones han ascendido en el año 2018 a 8.237,90 millones, 516 millones de euros más que en el ejercicio anterior, lo que supone un +6,68%.

Analizando los tipos de deducciones, las operaciones interiores son las más relevantes ya que representan el 85,45% del total deducido a lo largo del ejercicio, con un importe de 7.039,04 millones de euros. En 2018 han experimentado una variación positiva, alrededor de 462,26 millones anuales con una tasa positiva del 7,03%.

Le siguen en importancia por su cuantía las deducciones por adquisiciones intracomunitarias y las relacionadas con el comercio exterior. En este caso, las operaciones relacionadas con las adquisiciones intracomunitarias que se elevan a 826,51 millones de euros, representan el 10,03% del total y se han incrementado en un 3,85% (30,67 millones de euros).

Las relacionadas con las importaciones, también presentan una cifra superior respecto al año precedente, 366,96 millones frente a 335,33 millones, lo que supone un aumento del 9,43%.

79. taula / Cuadro nº 79
Kenkariak/Deducciones

Kenkariak Deducciones	2018		2017		% Aldakuntza Variación 2018/2017
	Zenbatekoa Importe	Portzentaje erlatiboa Porcentaje relativo	Zenbatekoa Importe	Portzentaje erlatiboa Porcentaje relativo	
Barruko eragiketengatik jasandako kuotak Cuotas soportadas operaciones interiores	7.039.041	85,45	6.576.779	85,17	7,03
Inportazioengatik jasandako kuotak Cuotas soportadas importaciones	366.962	4,45	335.327	4,34	9,43
Konp. Araub. Berez. Nekaz., abel, arran. Comp.rég.especial agric.,ganad.y pesca	4.743	0,06	13.313	0,17	-64,37
Inbertsioengatiko erregularizazio Regularización por inversiones	646	0,01	641	0,01	0,78
Erkidego barruko eskuraket. dedukzioak Deducciones adquisiciones intracomun.	826.505	10,03	795.831	10,31	3,85
Ekitaldiko kenkariak, guztira Total deducciones del ejercicio	8.237.897	100,00	7.721.891	100,00	6,68

Zenbatekoak milaka eurotan / Importes en miles de euros

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziko konpentsazioari dagokionez, horren garrantzia oso txikia da eta 2017arekin alderatuta jaitsi den bakarra da, % 64,37, guztira 4,74 milioi eurora heldu arte.

En relación a la Compensación del Régimen especial de agricultura, ganadería y pesca, su importancia relativa es muy pequeña y es la única deducción que ha descendido respecto de 2017, un 64,37%, hasta un total de 4,74 millones de euros.

Aurreko kasuan ez bezala, inbertsioen erregularizazioaren ziozko kenkariak % 0,78 egin du gora: 2017ko 641 mila eurotik eta 2018ko 646 mila euroraino.

A diferencia de lo ocurrido en el caso anterior, la deducción por regularización de inversiones aumenta en un 0,78%, pasando de 641 mil euros en 2017 a 646 mil euros en 2018.

Bi kenkarien zenbatekoen baturak (5,39 milioi) ez dauka inolako pisurik kenkarien guztirako zenbatekoan (% 0,07).

La suma de los importes de ambas deducciones alcanza la cifra de 5,39 millones y apenas tiene peso específico en el importe total de las deducciones aplicadas (0,07%).

Sortutako guztizko kuota eta kenkariak alderatzen badira 2018ko ekitaldian, biek ere gora egin dutela ikusten da: hurrenez hurren % 7,66 eta % 6,68 igo dira.

Si se comparan la cuota devengada total y las deducciones en el ejercicio 2018, se puede apreciar un aumento tanto de la primera (7,66%) como de la segunda (6,68%).

2018ko BEZean araubide orokorrean sortutako kuotaren zenbatekoa (baliokidetasun araubidea barne) 10.892,77 milioi euro izan da, eta ekitaldiko kenkariena 8.237,90 milioi; hortaz, 2018ko ekitaldian % 75,63 kendu da eta 2017an, berriz, % 76,32 kendu zen.

En resumen, si la cuota devengada en el Régimen General de IVA 2018 (incluido régimen de equivalencia) se eleva a 10.892,77 millones de euros y las deducciones del ejercicio a 8.237,90 millones, el porcentaje deducido en este ejercicio se sitúa en el 75,63% siendo este parámetro del 76,32% en 2017.

Labur azalduta, 2018ko BEZaren eta 2017ko BEZaren magnitude nagusietan aldaketa hauek gertatu dira:

En resumen, las principales magnitudes de IVA 2018 e IVA 2017 han registrado las siguientes variaciones:

80. taula/ Cuadro nº 80
BEZaren magnitude nagusien aldakuntza (ehunekoak)
Porcentajes de variación de las principales magnitudes del IVA

Kontzeptua / Concepto	2018	2017
Guztizko zerga oinarria Total base imponible	7,13%	-4,12%
Sortutako BEZagatiko guztizko kuota Total cuota IVA devengada	7,66%	-5,10%
Jasandako BEZa, guztira (kenkariak) Total IVA soportado (deducciones)	6,68%	-5,78%
Araubide orokorrek emaitza Resultado Régimen General	10,83%	-2,85%

Datu horiek ikusita, kenkariak zerga-oinarria eta sortutako kuota baino gutxiago igo direla ikus daiteke; era berean, aurreko urtearen aldean, Araubide Orokorraren emaitza igo da, sortutako BEZaren zein jasandako BEZaren hazkunde-tasa handienen ondorioz.

A la vista de estos datos, se aprecia un ascenso de las deducciones en menor medida que el aumento de la base imponible y de la cuota devengada, asimismo, aumenta el resultado del Régimen General con respecto al año anterior por las mayores tasas de crecimiento tanto del IVA devengado como del IVA soportado.

Hazkunde positiboko tasa horiek aurreko ekitaldietan ikusiriko goranzko joera berresten dute.

Estas tasas de crecimiento positivo ratifican la tendencia de crecimiento que se observó en ejercicios pasados.

2018an Zergaren likidazioaren ondoriozko sarrerak (araubide orokorra eta araubide erraztua) 3.425,05 milioi euro izan dira (2017an baino 256,3 milioi gehiago). Beste alde batetik -786,88 milioi euro itzuli dira (2017an baino 52,44 milioi gehiago). Azkenik, konpentsazioen saldoan 26.421 milako euroko aldakuntza negatiboa gertatu da.

Diru-sarrerei itzulketak eta konpentsazioen aldakuntzak kenduz gero, Bizkaiko Lurralde Historikoari egotzitako emaitza ateratzen da, 2.664,59 milioiko zenbatekoa, hain zuzen ere (2017an baino 258,86 milioi euro gehiago, hots, % 10,76ko hazkundea termino erlatiboetan)

2016-2018 aldian Bizkaiko Lurralde Historikoari egotzitako guztizko emaitza % 7,58 hazi da, baina aldakuntza-tasak ez dira berdinak izan ekitaldi guztietan:

⇒ 2018an emaitza % 10,76 hazi da, diru-sarrerek izandako % 8,09 gorakadaren eraginez (itzulketak % 7,14 igo diren arren) eta konpentsatu beharreko aldakuntzen saldo negatiboaren ondorioz.

⇒ 2017an emaitza % 2,87 jaitsi da, bai itzulketek bai diru-sarrerek izandako gorakaden eraginez (hurrenez hurren % 2,97 eta % 0,91), eta horri erantsi behar diogu konpentsatu beharreko aldakuntzen saldo positiboa.

⇒ 2016an emaitza % 2,11 hazi da, bai sarrerek bai itzulketek izandako gorakaden eraginez (hurrenez hurren, % 0,68 eta % 1,04), eta horri erantsi behar diogu konpentsatu beharreko aldakuntzen saldo negatiboa.

En 2018 la liquidación del Impuesto (Régimen General más Régimen Simplificado) genera unos ingresos por valor de 3.425,05 millones (256,3 millones más que en 2017), unas devoluciones por importe de -786,88 millones de euros (52,44 millones más que en 2017) y una variación negativa del saldo de las compensaciones por importe de 26.421 euros.


El resultado de restar de los ingresos las devoluciones y las variaciones de las compensaciones da lugar al resultado atribuido al Territorio Histórico de Bizkaia el cual ascendió a 2.664,59 millones, 258,86 millones de euros superior al obtenido en 2017, lo que en términos relativos supone un aumento del 10,76%.

A lo largo del periodo 2016-2018 el resultado total atribuido al Territorio Histórico de Bizkaia ha aumentado un 7,58% pero las tasas de variación han cambiado de un ejercicio a otro:


⇒ En 2018 el resultado asciende un 10,76%, por el efecto del aumento registrado en los ingresos, 8,09% a pesar del aumento de las devoluciones, 7,14%, a lo que añadimos un saldo negativo de las variaciones a compensar.

⇒ En 2017 el resultado desciende un 2,87%, por elefecto del aumento registrado tanto en las devoluciones, 2,97%, como en los ingresos , 0,91%, a lo que añadimos un saldo positivo de lasvariaciones a compensar.

⇒ En 2016 el resultado se incrementa en un 2,11%, por el efecto del aumento registrado tanto en los ingresos, 0,68%, como en las devoluciones, 1,04%, a lo que añadimos un saldo negativo de las variaciones a compensar.



V.4.6 BEZa aitortzaile moten arabera
IVA según tipo de declarante



Bizkaiko Lurralde Historikoko oinarriaren, kuoten eta emaitzaren azterketan aitortzaile-motari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu BEZaren guztizko zerga-oinarritik (baliokidetasun-errekarguaren araubidea kanpoan utzita), sortutako oinarriaren % 95,62 eta oinarriaren % 95,86 eta araubide orokorreko emaitzaren % 91,16 dagozkiela nortasun juridikodun sozietate edo entitateei; horiek 2018ko BEZaren aitortzaileen % 34,26 dira.

Si el análisis de la base, las cuotas y el resultado del THB lo realizamos ateniéndonos al tipo de declarante nos encontramos que del total de la base imponible de IVA (sin incluir régimen de Recargo de equivalencia), el 95,62% de la base, el 95,86% de la cuota devengada así como el 91,16% del resultado del Régimen General corresponde a las Sociedades o Entidades con personalidad jurídica que representan el 34,26% de los declarantes de IVA 2018.

Duten garrantzia kuantitatiboagatik, Sozietate Anonimoak gailentzen dira. Izan ere, aitortzaileen % 3,47 bakarrik dira (3.271 subjektu pasibo) eta zerga-oinarriaren % 49,34 eta zioz sortutako kuotaren % 51,49 ematen dute. Ehuneko horien arabera, mota horretako sozietateek garrantzia galdu dute zergaren aldagai guztietan 2018ko BEZean. Izan ere, oinarrian nahiz kuotan, guztizkora egindako ekarpena puntu 1 inguru jaitsi da, eta 100 sozietate anonimoren zergadunak galdu dira. Hala ere, logikoa denez, aitortzaile motaren araberakoak izaten jarraitzen dute BEZeko zergadun handienak.

Por su importancia cuantitativa, destacan las Sociedades Anónimas ya que siendo sólo el 3,47% de los declarantes (3.271 sujetos pasivos), aportan el 49,34% de la base imponible, y el 51,49% de la cuota devengada. Estos porcentajes indican una pérdida de importancia de este tipo de sociedades en todas las variables del impuesto en IVA 2018. De hecho, tanto en base como en cuota su aportación al total se ha rebajado alrededor de 1 punto porcentual con una pérdida de contribuyentes de 100 sociedades anónimas. Aún así, como es lógico, siguen siendo por tipo de declarante, los mayores contribuyentes de IVA.

Aitortzaile-kopururik handiena, sozietateen barruan,

El mayor número de declarantes, dentro de las

erantzukizun mugatuko sozietateei dagokie. Aitortzaileen % 27,01 dira, eta sozietate aitortzaile guztien % 78,8, baina oinarriaren gaineko ehunekoak eta sortutako kuota % 39tik hurbil daude. Garrantzi kuantitatiboaren igoera oso txikia da, ez da iristen 2018ko BEZaren ehuneko puntura.

sociedades, corresponde a las Sociedades de Responsabilidad Limitada. Representan el 27,01% de los declarantes y 78,8% del total de sociedades declarantes, pero los porcentajes sobre la base y la cuota devengada están cercanos al 39% con una mínima subida de su importancia cuantitativa, que no llega al punto porcentual en IVA 2018.

Gainerako sozietateak eta sozietate kooperatiboak aitortzaileen % 3,78 dira, eta zerga-oinarrian eta 2018ko BEZean sortutako kuotan egindako ekarpena % 6 inguruan mantendu da.

El resto de Sociedades y las Sociedades Cooperativas constituyen el 3,78% de los declarantes y su aportación a la base imponible y a la cuota devengada del IVA 2018 se mantiene en porcentajes cercanos al 6%.

Horrenbestez, oinarri horren % 2,85 eta sortutako kuotaren % 2,77 baino ez dagokie 55.391 pertsona fisikoen subjektu pasiboei (guztizkoaren % 58,76). Gainerako zenbatekoa 6.576 ondasun-erkidegori dagokie.

Por tanto, sólo el 2,85% de dicha base y el 2,77% de la cuota devengada, corresponden a 55.391 sujetos pasivos personas físicas (58,76% del total). El resto de los importes corresponden a 6.576 comunidades de bienes.

Araubide orokorrean, Bizkaiko Lurralde Historikoari egotzitako emaitzaren banaketa aitortzaile-moten artean bat dator logikarekin: ehunekorik handiena sozietate anonimoei dagokie (% 56,63 eta 1.503,56 milioi euro) eta ondoren erantzukizun mugatuko sozietateak datoz (% 36,38 eta 965,75 milioi euro).

La distribución del Resultado atribuido al Territorio Histórico de Bizkaia, relativo sólo al Régimen General, en función del tipo de declarante, responde a criterios lógicos ya que el mayor porcentaje se obtiene en las Sociedades Anónimas con un 56,63%, 1.503,56 millones de euros, seguido por las Sociedades de Responsabilidad Limitada con el 36,38%, 965,75 millones de euros.

Aurreko ekitaldiaren aldean, apur bat jaitsi da sozietate anonimo aitortzaileen kopurua, eta, igo egin dira, bestalde, apur bat izan arren, horien aitortutako araubide orokorreko emaitzaren, sortutako kuotaren eta oinarriaren zenbatekoa. Era berean, aldagai horiek berak igo egin dira, erantzukizun mugatuko sozietateen kasuan izan ezik.

Con respecto al ejercicio anterior, disminuye levemente el número de Sociedades Anónimas declarantes, mientras que aumentan, también levemente, el importe de la base, cuota devengada y resultado del Régimen General declarados por las mismas. Asimismo, se incrementan estas mismas variables, en el caso de las Sociedades de Responsabilidad Limitada.

Araubide erraztuaren emaitza, ordea, osorik egotzi zaie sozietate zibilei, ondasun-erkidegoei eta pertsona fisikoei, behar den bezala: % 1,86, % 4,09eta % 94,05, hurrenez hurren.

Sin embargo y como es preceptivo, el resultado del Régimen Simplificado se imputa en su totalidad a las Sociedades Civiles, Comunidades de bienes y a las Personas Físicas en la proporción del 1,86%, 4,09% y 94,05%, respectivamente.

Sozietate anonimoen eta erantzukizun mugatuko sozietateen ehunekoa Bizkaiko Lurralde Historikoko guztizko emaitzan % 56,43 eta % 36,24 izan da, hurrenez hurren.

La participación de las Sociedades Anónimas y de Responsabilidad Limitada en el total resultado del THB alcanza porcentajes del 56,43% y 36,24%, respectivamente.

Ondasun-erkidegoen partea % 2,25 izan da, 59,96 milioi baino ez baitute jarri, eta pertsona fisikoei % 6,91 dagokie, 184 milioiko ekarpena egin baitute, aurreko ekitaldian baino 8 milioi gehiago.

En el caso de las comunidades de bienes la participación ha sido del 2,25%, aportando tan sólo 59,96 millones y las personas físicas el 6,91% con una aportación de 184 millones, y un incremento de 8 millones.

Zerga-bilketari dagokionez, sozietate anonimoek ekitaldian egindako sarrera eta itzultzeen gainean izandako partaidetza % 49,15 eta % 40,75 artekoa izan da.

En términos de recaudación, la participación de las Sociedades Anónimas sobre el total de ingresos efectuados en el ejercicio y del total de devoluciones, se mueve en un intervalo entre el 49,15% y 40,75%, respectivamente.

Erantzukizun mugatuko sozietateen ehunekoa ekitaldiko sarreretan % 39,94 izan da eta itzulketetan


Estos porcentajes son entre el 39,94% y el 37,97% en el caso de las Sociedades de Responsabilidad Limitada.

% 37,97.

Laburbilduz, 2018an BEZean pixka bat jaitsi da sozietate anonimoen partaidetza guztizko diru-sarreretan eta igo egin da pixka bat horien partaidetza itzulketetan, erantzukizun mugatuko sozietateen gainekoen kalterako eta onerako, hurrenez hurren.

En resumen, en IVA 2018, disminuye muy levemente la participación de las Sociedades Anónimas en el total ingresos y aumenta también muy levemente la participación de éstas en las devoluciones, en favor y en perjuicio, respectivamente, de las relativas a las Sociedades de Responsabilidad Limitada.

V.4.7 BEZa jarduera-sektoreen arabera
IVA por sectores de actividad



Arestiko grafikoak BEZ 2018ko araubide osoari (araubide orokorraren eta araubide erraztuaren arteko batura) dagozkion zergapeko kopuruaren banaketa, zerga-oinarria, sortutako kuota eta Bizkaiari egotzitako emaitza jasotzen ditu, BEZaren erroldako altan agertzen den jarduera nagusiaren epigrafearen arabera esleitutako jarduera-sektoreari jarraikiz.

El gráfico anterior recoge la distribución del número de contribuyentes, la base imponible, la cuota devengada y el resultado correspondiente a Bizkaia del Régimen Total (suma del Régimen General y Régimen Simplificado) de IVA 2018 según el sector de actividad asignado en función del epígrafe de la actividad principal que figura de alta en el censo de IVA.

Azken ekitaldietan ia ez da aldatu zergaren osagai nagusiek jarduera ekonomikoaren sektoreen arabera izan duen banaketa; 2018ko ekitaldian bakarrik egon dira gorabeherak sektore desberdinetan.

La distribución de los principales componentes del impuesto por sectores de la actividad económica permanece casi inalterable a lo largo de los últimos ejercicios con ligeras oscilaciones en 2018 en los distintos sectores.

Horrela, zergadunei dagokienez:

Así, en cuanto a los contribuyentes:

- Zerbitzuen sektoreak subjektu pasibo gehien biltzen dituen sektore gisa jarraitu du, % 70,03rekin, eta haren barruan merkataritza eta beste merkataritza-zerbitzu batzuen sektorea nabarmentzen da aitortzaile kopuruari dagokionez.

- Se mantiene el Sector de Servicios como el que más sujetos pasivos congrega, con el 70,03% del total y dentro del mismo destacan por número de declarantes, el sector de Comercio y Otros servicios comerciales.

- Industrian biltzen dira zergadun guztien % 7,67, hau da, 7.234 inguru; eta hor 14

- La Industria representa el 7,67% del total de contribuyentes, unos 7.234, y dado que aquí

azpisektore daudenez, alorren arteko banaketa orekatuagoa da. Garrantzitsuena Elikadura da, sektorearen % 24 hartzen baitu, eta ondoren Eraikuntza Metalikoak eta Artikulu Metalikoak.

se engloban 14 subsectores, la distribución entre las diferentes ramas está más repartida, siendo la más importante Alimentación con el 24% del sector, seguida de la rama de Construcciones Metálicas, y Artículos Metálicos.

- Eraikuntza guztizkoaren % 13,93 da eta zergapekoen kopuruak pixka bat egin du gora, aurreko urtearekin alderatuz gero. Guztizkoarekin alderatuta duen garrantzia espezifikoa antzera mantendu da.

- La Construcción representa el 13,93% del total, con un ligero incremento en el número de contribuyentes respecto al año anterior y similar peso específico sobre el total.

2018ko BEZaren zerga-oinarriaren kasuan (baliokidetasun-errekargua kontuan hartu gabe), Zerbitzuak eta Industria dira sektorerik garrantzitsuenak. Hala:

En el caso de la base imponible IVA 2018 (excluida base por Recargo de equivalencia) también Servicios e Industria son los sectores de mayor importancia. Así:

- Zerbitzuen sektoreak zerga-oinarri osoaren erdia baino gehiago hartzen du, % 55,61, 2017ko ehuneko puntutik gertu, eta sektore horren barruan Merkataritzarena da garrantzitsuena, % 60,73ko partea duelako, 19 mila milioi eta erdi, alegia, 2018ko BEZaren zerga-oinarri osoaren % 33,77. Garrantziari erreparatuta, horren ondoren dator Beste merkataritza-zerbitzu batzuen alorra: 9 mila milioi eta seiehun euroko zerga-oinarriarekin, sektorearen % 30,08 hartzen du, eta guztizkoaren % 16,72.

- El Sector Servicios representa más de la mitad de la base imponible total con el 55,61%, con un aumento cercano al punto porcentual respecto a 2017, siendo dentro de este sector la rama del Comercio la más importante con una participación del 60,73% del mismo, 19 mil millones y medio, lo que supone el 33,77% del total de base imponible del IVA 2018. La segunda más importante es la rama de Otros servicios comerciales con una base imponible de 9 mil seiscientos millones de euros que representa el 30,08% del sector y el 16,72% del total.

- Industriak guztizkoaren % 30,45 hartzen du, eta ia 2 puntuko balio erlatiboa galdu du. Sektore horren barruan, energia eta uraren adarrak, 281 zergapeko baino ez badauzka ere, sektorearen zerga-oinarriaren % 45,68 biltzen du eta zerga-oinarri guztiaren % 13,91, azpisektore honetan sartzen direlako hidrokarburo operadoreak eta energia banatzeko industriak. Hala ere, azpisektore horrek botere erlatiboa irabazi egin du sektorearen barruan (0,2 puntu) eta BEZaren guztizko oinarrian galdu egin du (ia 1 puntu), 2017ko datuekin alderatuta. Industriako bigarrena elikaduraren adarra da; sektorearen oinarriaren ia % 11,67 dagokio, eta BEZaren oinarriaren % 3,55.

- La Industria supone el 30,45% del total, con descenso de valor relativo de casi 2 puntos. Dentro de este sector la rama de Energía y Agua con solo 281 contribuyentes representa el 45,68% de la base imponible del sector y el 13,91% de la base imponible total porque en este subsector se engloban los operadores de hidrocarburos y las industrias distribuidoras de energía. Aun así, este subsector gana poder relativo dentro del Sector (0,2 puntos) y pierde sobre el Total Base de IVA (casi 1 punto) con respecto a 2017. En segundo lugar, dentro de la Industria, está la rama de Alimentación con el 11,67% de la base del sector, y el 3,55% del total base IVA.

- Eraikuntzaren sektorearen zerga-oinarria 3.500,64 milioi euro izan da, guztirakoaren % 6,05. Aurreko urteetako ondoz ondoko jaitsieren joera apurtu da, 2017. urtean sektore horren BEZaren oinarriaren zenbatekoan igoera gertatu delako, krisiaren urteetan hainbeste astindu duten sektore horretan, eta 538 milioi euroko gorakadarekin jarraitzen du 2018an. Horrez gain, sektoreak guztizkoa duen pisu erlatiboa 0,55 puntu handitu da.

- El sector de la Construcción con una base imponible de 3.500,64 millones de euros, supone el 6,05% del total de la misma. Se rompe la tendencia de bajadas sucesivas de años anteriores, ya que en 2017 se produce un aumento en el importe de la base de IVA de este sector tan vapuleado en los años de la crisis, y continúa en 2018 con un incremento de 538 millones. Además, se produce un aumento porcentual de 0,55 puntos en el peso relativo del sector en el total.

Sortutako guztizko kuotak (baliokidetasun errekarguaren araubidea sartu gabe) honako banaketa

La cuota devengada total (excluido Régimen de Recargo de Equivalencia) presenta la siguiente

hau dauka sektoreen arabera:

- Aurreko ekitaldi guztietan bezala, zerbitzuen sektoreak kuota osoaren erdia baino gehiago adierazten du, % 54,27rekin, baina 0,54 puntu igo da garrantzi kuantitatiboa sektore osoan, azpisektore gehienetan antzemandako igoeraren eraginarengatik.

- Haren barruan, jarduera-adar garrantzitsuenak hauek dira: merkataritza (% 59,38) eta beste merkataritza-zerbitzu batzuk (zerbitzuen sektoreko % 31,45).

- Industriaren sektorea, sortutako kuota osoaren % 31,58 da, puntu eta erdi inguruko jaitsierarekin, energia eta ura azpisektoreko enpresen zama kuota osoaren gainean jaitsi delako. Hala ere, adar horren sektorearen barruan izandako berariazko pisu handiagoa jaitsi egin da, % 49,14tik % 48,83ra, sektoreak sortutako kuotatik. Ondoren Oinarrizko Industria Metalikoak (% 10,61) eta Eraikuntza Metalikoak (% 7,38) datoz, garrantzi erlatiboaren arabera.

- Eraikuntzaren sektoreak sortutako kuota osoaren % 6 inguru biltzen du. Hala, aurreko ekitaldiari dagokion pisuaren zati bat igo da, baina oraindik aurreko ekitaldietako bere pisuaren azpitik, guztizkoaren ehuneko zortzi eta bederatziaren artean dagoena; era berean, berreskurapen motel baten zeinuan azaltzen ditu.

Lortutako emaitza osoa eta sortutako eta jasanarazitako BEZaren arteko aldea, Bizkaiari esleitutako 2018ko BEZaren araubide orokorraren eta araubide erraztuaren emaitzen batura gisa kalkulatuta, honela banatu dira:

- Zerbitzuen sektoreak, zerga-oinarrian eta sortutako kuotan gertatzen den moduan, du ekarpenik handiena orain ere, % 50,56koa, eta bere partaidetza 2017ko ekitaldian baino 2 puntu portzentual handiagoa izan da. Sektore horren barruan jarduera adar garrantzitsuenak emaitzari dagokionez merkataritzaren eta beste merkataritza zerbitzu batzuen sektoreak izaten jarraitu dute, sektoreari % 50,40ko eta % 38,96ko ekarpena egiten baitiote, hurrenez hurren.

- Industria % 31,18 da, 2017an baino gutxiago, arestian aipatu den bezala, Energia eta ura azpisektoreko enpresek aitortutako zenbatekoek garrantzia galdu dutelako. Hala

distribución por sectores.

- Como en todos los ejercicios anteriores, el sector de Servicios representa más de la mitad de la cuota total, con el 54,27% con un pequeño aumento de 0,54 puntos porcentuales de importancia cuantitativa para la totalidad del sector por efecto del aumento observada en la mayoría de los subsectores.

- Dentro del mismo, las ramas de actividad más importantes son el Comercio (59,38%) y Otros servicios comerciales (31,45% del total sector Servicios).

- El sector de la Industria representa el 31,58% de la cuota devengada total, con un descenso cercano a un punto y medio porcentual por disminución de peso de las empresas del sub sector de Energía y Agua sobre la cuota total, aunque dentro del sector esta rama reduzca su superior peso específico desde el 49,14% hasta el 48,83% de la cuota devengada por el Sector. Le siguen en importancia relativa Metálicas Básicas (10,61%) y Construcciones Metálicas (7,38%).

- El sector de la Construcción representa poco más del 6% de la cuota devengada total. Aumenta así una pequeña parte de su peso relativo respecto del ejercicio anterior, pero todavía por debajo de su peso relativo en ejercicios anteriores situado entre el 8 y 9 por ciento del total, y mostrando signos de una lenta recuperación.

La distribución del Resultado Total obtenido como la diferencia entre el IVA Devengado y el IVA Soportado, y calculado como suma de los Resultados del Régimen General y del Régimen Simplificado de IVA 2018 atribuido a Bizkaia entre los sectores de actividad es la siguiente:

- El sector de Servicios, tal como ocurre con la Base Imponible y la Cuota devengada, sigue siendo el de mayor aportación al Resultado Total con un 50,56%, siendo su participación porcentual superior en más de 2 puntos porcentuales respecto al ejercicio 2017. Dentro de este sector las ramas de actividad más importantes a efectos del Resultado siguen siendo el Comercio y Otros Servicios Comerciales con una aportación al resultado del sector del 50,40% y 38,96%, respectivamente.

- La Industria representa el 31,18%, con decremento respecto a 2017 por la pérdida de importancia, tal como se ha dicho antes, de los importes declarados por las empresas del

ere, sektore horren barruan, jarduera-adarrik garrantzitsuena, eta alde handiarekin gainera gainerakoekiko, Energia eta ura da, % 88,27 esanguratsuarekin, sektoreko BEZaren emaitzatik (puntu erdi gehiago), eta 2018ko BEZa osoaren % 27,53 ingururekin. Sektore horren barruan 3 azpisektore daudela nabarmendu behar da, hots, aurreko ekitaldian baino bat gutxiago. Horiek emaitza negatiboa izan dute: −94,42 milioi. Honako hauek dira: Makina, Garraio materiala eta Kautxua eta Plastikoa; errekuperatu egin da Industria ez metalikoaren azpisektorea.

- Eraikuntzak guztizko emaitzaren % 7,13 hartu du, aurreko ekitaldiko pisu ia berbera mantenduz, eta guztira 190 milioiko zenbatekoa izan du.

Araubide erraztuaren emaitza kuantitatiboki oso adierazgarria ez denez, hurrengo grafikoan Araubide orokorraren emaitzak izandako bilakaera aztertuko dugu. 2018ko BEZaren emaitza kalkulatzeko, araubide orokorreko emaitza eta araubide erraztuko emaitza batu dira. Araubide orokorreko emaitza 2018ko BEZaren guztizko emaitzaren % 99,6 izan denez, batari zein besteari egiten zaizkien analisiak bat etorriko dira.

BEZaren araubide orokorraren emaitzaren bilakaerak, jarduera-sektoreka banatuta (2016-2018 aldian), argi erakusten du zerbitzuen sektoreak urteetan izandako pisu handiagoa. Gainera, 2018ko ekitaldian hazkundea izan du. Zerbitzuak zergaren pisurik handiena duen sektorea da. 2017an jaitsi egin zen, 2016ko ia 1.230 milioitik 2017ko ia 1.141 milioira igaroz. 2018an, igo egin zen, 1.338,25 milioira; hots, % 8,8ko igoera 2016tik eta hazkunde handiagoa azken urtean (+% 17,29).

Horri, Eraikuntzaren sektoreko berreskuratzea gehitu behar zaio, emaitza are altuagoarekin 2018an, 189,71 milioi eurora arte iritsiz; azken 3 ekitaldietan % 35,6ko hazkundearekin.

Azkenik, nabarmentzekoa da industriaren geldialdia. Bigarren sektorerik garrantzitsuena da, eta emaitzak behera egin du. Aztertutako aldian 15 milioi eurokoa izan da galera hori, −% 1,8. Bestalde, nekazaritza eta arrantza sektoreak partaidetza eskasa izan du emaitza honetan.

sub sector de Energía y Agua. Aun así, dentro de este sector la rama de actividad más importante y con mucha diferencia respecto a las demás es Energía y Agua con un significativo 88,27% del Resultado del IVA del sector (medio punto más) y alrededor del 27,53% del total IVA 2018. Destacar que dentro de este sector hay 3 subsectores, uno menos que en el ejercicio precedente, que presentan Resultado negativo por un total de -94,42 millones. Son los siguientes: Maquinaria, Material de Transporte y Caucho y Plástico, habiendose recuperado el subsector Industria no Metálica.


- La Construcción representa el 7,13% del total del resultado, manteniendo practicamente el mismo peso relativo respecto al ejercicio anterior, con un importe total de 190 millones.

Dado que el resultado del Régimen Simplificado es cuantitativamente muy poco determinante, en el siguiente gráfico se procede a estudiar la evolución del resultado del Régimen General. El Resultado de IVA 2018 se obtiene de la agregación del resultado del Régimen General más el resultado del Régimen Simplificado. Dado que el Resultado del Régimen General constituye el 99,6% del resultado IVA 2018 total, los análisis que se hagan de uno u otro coincidirán.

El análisis de la evolución del Resultado del Régimen General del IVA distribuido por sectores de actividad a lo largo del periodo 2016-2018 pone de manifiesto el mayor peso del sector de Servicios a lo largo de los diferentes años y además, con un aumento observado en el ejercicio 2018. Servicios es el sector con mayor peso del impuesto, con una disminución en 2017, pasando de casi 1.230 millones en 2016 a casi 1.141 millones en 2017, y con un mayor aumento en 2018, ascendiendo a 1.338,25 millones, lo que supone un crecimiento del 8,8% desde el año 2016, y un crecimiento mayor en el último año (+17,29%).

A ello se une una recuperación en el sector de la Construcción, con un resultado aún mayor en 2018, alcanzando los 189,71 millones de euros, con un incremento en los 3 últimos ejercicios del 35,6%.

Por último resaltar el estancamiento de la Industria que constituye el segundo sector en importancia incluso con una ligera pérdida en su resultado, que en el periodo analizado se cuantifica en 15 millones de euros (-1,8%), así como la escasa participación del sector de la Agricultura y Pesca en este resultado.



	Nekaz.abel.eta arrantza Agr. y Pesca	Industria Industria	Eraikuntza Construcción	Zerbitzuak Servicios	Sailkatu gabek Sin clasificacón
2018	17.009	830.803	189.714	1.338.249	279.100
2017	20.297	839.642	172.633	1.140.995	221.964
2016	24.602	845.892	139.943	1.229.995	225.252

Industriaren sektoreak eta zerbitzuenak nolako garrantzia duten ikusita, jarduera-adar bakoitzak bere sektorean egiten duen ekarpena eta 2016-2018 hirurtekoan izan duen bilakaera aztertuko ditugu ekitaldi horietako BEZaren araubide orokorreko emaitzei erreparatuta.

A) Industriaren sektorea


Industriaren sektoreko hamalau jarduera-adarrek oso bilakaera desberdina dute.

Dada la representatividad del sector industrial y de servicios, vamos a analizar la contribución de cada rama de actividad dentro de su sector correspondiente, así como su evolución en el trienio 2016-2018 a través del análisis del Resultado del Régimen General del IVA en esos ejercicios.

A) Sector Industria

Las catorce ramas de actividad del sector industrial tienen muy distinta evolución.

Industri sektorearen emaitza adarren arabea
Resultado del sector industrial por ramas



2018an, aldakuntza esanguratsuak izan dira sektoreko 14 taldeen emaitzen bilakaeran. Hala, 5 taldek baino ez dute lortu emaitzaren hazkundea, eta sektore bat negatibotik positibora igaro da, bere negatibotasuna murriztuz. Bestalde, beste 7 taldeen emaitza, aldiz, gutxitu egin da.

En 2018 hay variaciones significativas en la evolución del resultado entre los 14 grupos del sector. Así, tan solo en 5 grupos se registra un crecimiento en su resultado positivo, además de 1 sector con cambio de signo de negativo a positivo, 1 con minoración de su negatividad, mientras que disminuye, por el contrario, el correspondiente a los otros 7.

14 taldeetatik 11k dute saldo positiboa eta 3k saldo negatiboa (aurreko bi urteetan baino 1 gutxiago).

De los 14 grupos, 11 tienen saldo positivo y 3 de ellos saldo negativo (1 menos que en los dos años anteriores).

Gorago esan den moduan, 2018an sektoreko gertaerarik azpimarragarriena Energiaren eta Uraren azpisektorearen emaitzaren zenbatekoak jaisten jarraitzen duela izan da (ekitaldi honetan jaitsiera arina bada ere); gainera, sektorearen emaitza osoaren % 88,28 hartzen du azpisektore horrek.

Como se ha dicho con anterioridad lo más resaltable en 2018 en este sector es que continúa la disminución, aunque leve en este ejercicio, del importe del resultado del subsector de Energía y Agua que, que además constituye el 88,28% del resultado total del sector.

Jarraian xehetasunak ematen dira:

En detalle, destacar que:

- Energia eta Uraren zenbatekoa 2018an 3,34 milioi jaitsi da, 2017an baino gutxiago, izan ere, orduan, 27 milioi euro jaitsi baitzen.
- Energía y Agua disminuye en 2018 su importe en 3,34 millones, en menor medida que en 2017, en que disminuyó más de 27 millones de euros.
- Oinarrizko metalena % 5,5 handitu da. 2017ko BEZaren emaitzaren zenbatekoak handitzen jarraitzen du. Garrantzi kuantitatiboari dagokionez, hirugarren azpisektorea da Industrian.
- Metales Básicos, por el contrario se incrementa en un 5,5%. Continua su recuperación y acrecienta el importe del Resultado de IVA 2017. Constituye el tercer subsector por importancia cuantitativa en Industria.
- 2018/2017 ekitaldian industria ez-metalikoaren azpisektorearentzako zeinu aldaketarako hobekuntzarekin ikusitako hazkundea azpimarratu behar da, –19,9 miliotik +2,3 milioira igaroz.
- Destacar el incremento observado en 2018/2017 con su mejora por el cambio de signo para el subsector de Industria no Metalica, pasando de -19,9 millones a +2,3 millones.
- Era berean, hazkundea eman da, Kimikaren, Artikulu Metalikoen eta Material Elektrikoaren azpisektoreetan, % 2koa, % 4,47koa eta % 24,54koa, hurrenez hurren.
- Tambien se produce un incremento en los subsectores de Química, Artículos Metálicos y Material Eléctrico, en un 2%, 4,47% y 24,54%, respectivamente.
- Elikadurak 2014an hasitako goranzko bidea apurtu du, % 2,4ko beherakadarekin.
- Alimentación, rompe la senda creciente iniciada en 2014, con una disminución de un 2,4%.
- Era berean, Eraikuntza Metalikoak, % 87,78ko jaitsiera handiarekin.
- Asimismo, Construcciones Metálicas, con un gran descenso del 87,78%.

Makineria adarrak aurreko ekitaldietan bezala emaitza negatiboa izan du, baina nabarmen murritzagoa. Hain zuzen ere -19 milioi euroko zenbatekoa izan du, eta beraren negatibotasuna 3 milioi txikiagoa izan da 2018ko ekitaldian.

Las rama de Maquinaria como en ejercicios anteriores, mantiene un resultado negativo pero lo disminuye sensiblemente. Presenta un importe de –19 millones de euros, con una disminución en su negatividad de 3 millones en el ejercicio 2018.

Saldo negatiboa izan duten gainerako sektoreek, aldiz, negatibotasuna areagotu egin dute, eta Garraio materialarena eta Kautxoaren eta Plastikoarena izan dira negatibotasunaren gehikuntzarik handienak:

Por el contrario, en el resto de sectores con saldo negativo, aumentan su negatividad, siendo el aumento más significativo el producido en Material de transporte, pasando de –36,5 millones euros en 2017 a

lehenengoak 2017an −36,5 milioi euro izan zituen eta 2018an −61,1 milioi euro izan ditu, eta bigarrena -14,16 milioitik −14,35 milioira igaro da.

Egurra eta Altzariak sektoreak beheranzko joerarekin jarraitzen du, % 4,9ko jaitsierarekin, Ehungintza eta Oinetakoak azpisektorea bezala, % 4,5eko jaitsiera izan duena, 2017arekin alderatuta.

Beraz, 2018an mantendu egin da zerga-bilketaren galera industria-sektorean, ia 9 milioiko jaitsierarekin, 2017an baino zertxobait gehiago (-6 milioi), 2015ean izandako 141,5 milioi euroko jaitsiera handiaren aldean, 2014. urtearen aldean.

-61,1 millones de euros en 2018, el de Caucho y Plástico de -14,16 a -14,35 millones.

Madera y Muebles continua con la tendencia decreciente, con un descenso del 4,9%, al igual que el subsector Textil y Calzado, que presenta un descenso del 4,5%, respecto del año 2017.

Por tanto, en 2018 se mantiene la pérdida de recaudación, en el sector industrial, con un descenso de casi 9 millones, un poco más que en 2017 (-6 millones) frente al descenso relevante de 141, 5 millones de euros registrado en 2015 respecto al año 2014.

B) Zerbitzuen sektorea

Zerbitzuen sektorea sei jarduera-adarretan dago banatuta.

Grafikoan, adar guztien Araubide Orokorraren emaitza igo dela ikusi da; merkataritzakoak ez diren beste zerbitzu batzuen kasuan izan ezik, % 16,9 jaitsi dena; baina pisu espezifikorik txikiena duena da.

Garraio eta Komunikazioaren adarrak hazkunderik handiena izan duena da (ia % 31), gero, Banku eta aseguruena dago (adar hori, urtetik urtera, estatistika-seriea ikusita, gorabeherak ditu bere emaitzan) — 2018an % 29ko igoera izan duena— eta Herri Administrazioarena —% 28,5—.

Zentzu horretan, gutxien hazi diren jarduera-adarrak pisurik handiena dutenak dira. Hala, Merkataritza % 21 hazi da eta Merkataritzako beste zerbitzu batzuk % 11.

B) Sector Servicios


El sector Servicios está distribuido en seis ramas de actividad.

En el gráfico se aprecia que aumenta el resultado del Régimen General de todas las ramas excepto en el caso de Otros Servicios no Comerciales, que disminuye un 16,9%, aunque es el de menor peso específico.

Las rama de Trasnporte y Comunicación es la de mayor crecimiento (casi un 31%), seguido de Banca y seguros (rama que año tras año, observando la serie estadística, sufre altibajos en su resultado) y que en 2018 se cuantifica en un aumento del 29%, y de Administración Pública, con un 28,5%.

En este sentido, las ramas de actividad que menos crecen son las de mayor peso relativo. Así, Comercio, crece un 21% y Otros Servicios Comerciales un 11%.

Zerbitzuen sektorearen emaitza adarren arabera
Resultado del sector servicios por ramas



	Merkat. Comercio	Gar. Kom. Transp. y Comunic.	Banka-Aseg. Banca y Seguros	Adm. Publ. Adm. Públ.	Best. M. Zer. Otros S. Com.	M. Kan. B. Zerb. Otros S. no Com.
2018	676.691	90.857	12.791	22.592	523.017	12.301
2017	558.234	69.474	9.912	17.584	470.986	14.805
2016	538.486	73.492	33.105	15.603	557.993	11.317

2016-2018 aldian zehar etengabeko hazkundea iizan duen adar bakarrak honako hauek dira:

- Merkataritza, pisu espezifikorik handiena duena, % 25,7 hazi da hiru urte horietan eta 2018ko emaitza zerbitzuen sektorearen % 50,57 izan da.

- Herri Administrazioa, ia % 45eko hazkundearekin azkenengo 3 ekitaldietan.

Merkataritzako beste zerbitzu batzuen kasuan, atzerakada handia izan zuen 2017ko ekitaldian eta partzialki berreskuratu da, 2017arekin alderatuta % 11 haziz. Nolanahi ere, sektorean duen pisua 2017ko % 41,28tik 2018ko % 39,08ra pasa da BEZean.

Zerbitzuen barruan dauden gainerako azpisektoreek gorabeherak izan dituzte aztertutako aldian.

A lo largo del periodo 2016-2018 la única rama que ha mostrado resultados de crecimiento continuado, han sido:

- Comercio, que es además la de mayor peso específico que ha crecido un 25,7% en estos tres años, y su resultado representa, en el ejercicio 2018, el 50,57% del sector Servicios.

- Administración Pública, con un incremento de casi el 45% en los 3 últimos ejercicios.

En el caso de Otros Servicios Comerciales, que sufrió un fuerte retroceso en el ejercicio 2017, se recupera parcialmente, incrementándose en un 11% respecto de 2017. No obstante, su peso en el total del sector se ha visto rebajado del 41,28% en 2017 al 39,08% en IVA 2018.

El resto de los subsectores englobados en Servicios experimentan altibajos a lo largo del periodo analizado.

V.4.8 Udalen analisia
Análisis municipal

BEZaren magnitude nagusiak udalen arabera aztertuta, pentsatzekoa zen bezala ekitaldi guztietan Bilbon egon da aitortzaile kopururik handiena, baita 2018ko BEZari dagokionez ere:

- 32.652 izan dira (30.829 araubide orokorrean eta 1.823 araubide erraztuan). BEZeko subjektu pasibo guztien % 34,53 dira.

- Dagokien zerga-bilketa garbia (diru-sarrera osoak ken guztizko itzulketak) 730,15 milioi eurokoa da (guztizkoaren % 27,68), 2017ko BEZean baino 56,4 bat milioi gehiagokoa. Beraz, haien garrantzi erlatiboa ehuneko 4 puntu murriztu da.

Gainera, honako hauek nabarmentzen dira, euren zenbatekoei erreparatuta:

- Muskizek 479 zergadun baino ez ditu izan (aitortzaile guztien % 0,51), baina 482,28 milioiko zerga-bilketa garbia izan du, hau da, bildutako zenbateko osoaren % 18,28, udalerrian enpresa handi bat dagoelako. Guztizko zerga-bilketan dagokion zatia handitu egin da berriro ere. Zehazki, 2017an puntu erdi eta 49 milioi.

